

GALLASTEGI MADINABEITIA M  
GAZTELUONDO KALEA, 09-02.  
ARRASATE

# Arrasate

P R E S S

1999ko  
Ekainak 11  
455. zenb.



## Arrasate - Broad Peak



IKUSPEGIA: JM VELEZ DE MENDIZABAL • KULTURA: TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX  
EUREN IKUSPUNTUTIK: EUGENIO ITURRIOTZ • KIROL ELKARRIZKETA: L. ERRASTI



eusko  
alkartasuna



EAJ  
PNV



Jose Maria Löffi



Amaia Larrañaga

**Arrasate**  
zuk nahi duzun herria.

# Arressate-tik Arrasate-ra

Lehenengo maiatzaren 15ean, 739 urte betetzen ziren Mondragon hiriaren sorkuntzatik. Hain efemeride irregularrak ez zukeen nire arreta irabaziko, *Euskonews* aldizkari elektronikoaren 33. zenbakian albisteak irakurri izan ez banu. Eta hain zuzen ere, horrexek ipini nau ordenadorearen aurrean, ene uestez behin betikoz garbi utzi beharko litzatekeen puntutxo bat argitzeko. 1260ko maiatzaren 15ean, Alfontso X.ak —Jakintsu gaitzizenarekin ezagunagoa— nortasuneko agiria eman zion, une hartan bertan sortarazi zuen Mondragon hiriari. San Esteban del Puerton izenpeturiko jaiotze agiri hartan honela irakurtzen dugu:

“Por favor que avemos de fazer bien e merced a todos los pobladores de la puebla que es en



JM Velez de Mendizabal

**“Edozein izenen etimologiaz aritzeko, arren, irakur ezazue piska bat historian”**

Leniz, que avie ante nombre *Arressate*, a que Nos ponemos nombre Montdragon”.

Arressateko Udaletxean gordetzen den agiri horretan, nik baino askoz lehenago ere beste historialari batzuek ere irakurri dute hori. Baina ez bide diote garrantzi handirik eman, gaur honetara nakarren gaiaren gainean argi apur bat jartzeko. Nik dakidalarik, —eta horretarako Eusko Ikaskuntzak 1992an argitaraturiko “Coleccion documental del Archivo municipal de Mondragon. Tomo I. 1260-1400” liburura jo dut— udaletxean badira beste dokumentu batzuk ere eta guztietan Mondragon izena azaltzen zaigu, aldaeraren bat edo bestearekin (Mondragon, adibidez).

Goiko dokumentu horien ostean datorren 1334.ko ekainaren 6koan, berriz, egon

daiteke, urte luzeetan gure “intelektual” askoren buruhaustea adierazi duenaren arrazoia eta, ondorioz, arazoaren giltza. Begira: aipatutako agirian, Alfontso XI.ak San Juan de la Peñan izenpetuan, honako hau irakurtzen da:

“...sus procuradores con su procuracion seellada con su sello. E mostraronnos en commo el rey don Alfonso, nuestro visavuelo, que poblo la dicha villa de Mondragon, les ovo dado un previllegio en que se contiene que por saber que avia de faser bien e merced a los pobladores de la puebla que es en Leniz que avia antes nonbre Arrassate a que el puso Montdragon...”.

Halehoop! Horra hor, Mondragon sortu eta handik laurogeita lau urtera Pero Ferrandes eskribau gizaraxoak eginiko transkripzioko hutsa. Jakin izan balu Ferrandesez zer-nolako burukomina sorraziko zizkien bere despiste haren ondorioz gure tokizenetako zergatikakoen hainbat bilatzailer!

Laburbilduz, mezua ikertzaile afizionatuei: edozein izenen etimologiaz aritzeko, arren, irakur ezazue pixka bat historian. Bidea erraztuko zaizue eta. ■

*“Egia da Alderdi Sozialistarentzat euskara ez dela izan prioritate bat. Zoritxarrez, euskara nahastuta egon da indarkeriarekin”*

**Gregorio Atxutegi**

# 16

**milioi pta.ko aurrekontua San Juanetarako**

Aurtengo San Juanetarako Mondragoeko Udalak 16.406.800 pta.ko aurrekontua onartu du, iaz baino bi milioi pta gehiago. Berrikuntzarik handienak erraldioen bilkura eta karreretarko auto zaharren rallya izango dira.

ITURRI ONETIK

## Arressate, Europako telebisten jopuntuan

Ekainaren 13ko hauteskundeak direla eta, Europako eta Ameriketako komunikabide askok Euskal Herrian jarri dituzte begiak. Eta Euskal Herrian Arressatek erakarmen berezia duela ematen du. Zer dela eta? Kooperatiben sehaska delako eta ETako zenbait buruzagi historikoren jaioterria, besteak beste.

Egun hauetan ere hainbat telebistak aukeratu dute Arressate atzergai gisa. Kanpainaren hasieran Alemaniako ARD telebista izan zen hainbat ekitaldi politiko grabatzen eta elkarrizketak egiten. Egun hauetan, berriz, Alemaniako ARTE Telebista dabil gure artean. Orain urtebete eta erdi izan zirenetik giroa zentzuzko aldatu den jasotzera etorri dira. Interes berezia erakutsi dute EHko jendearekin egoteko.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitateak:** Nerea Zallo, Aranzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabarbe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioak:** Aguntzane Gaitzizenaren (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trubue-lo. **Asteburuetako berriemakileak:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa ardura:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta intzieren erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubue-lo.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 11**  
• Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Larunbata, 12**  
• Gauez eta egunez: Español, Iturriotz
- Igandea, 13**  
• Gauez eta egunez: Korkuera, Musakola
- Astelehena, 14**  
• Gauez eta egunez: Irizar, Erguin
- Astearte, 15**  
• Gauez eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Asteazkena, 16**  
• Gauez eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Osteguna, 17**  
• Gauez eta egunez: Ruiz, Maala

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Igalatorioa ..... 943 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
Bergara ..... 943 76 55 76
- DYA**  
Antzuola ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdiak) ..... 943 03 53 00  
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea ..... 943 03 53 52  
• Kanpoko kontsultak: ..... 943 03 53 11  
• Fax zenbakia: ..... 943 03 05 14  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramaio ..... 945 45 51 16
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44
- Udalzaingoa**  
Oñati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 77 91 06  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskoriatza ..... 943 71 44 07
- Ertzaintza**  
Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**  
Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## ITURBIDE EGOITZA

**1**996an hemeretzi ospitale laguntzaile kontratatu ziren Iturbide Egoitzan lehiaketa bidez. Jarduera berria (lanzamiento de nueva actividad) izeneko kontratu mota erabili zen hartarako.

Gogoratu nahi dugu lan hau beste enpresa baten bidez kudeatu zela, azpikontratu baten bidez, nahiz eta ez ahaztu egoitzak berak zerbitzuaren zati bat kudeatzen duela zuzenean.

1998an, hemezortzi hilabeteren ostean, kontratuak ez berritzea erabaki zuten, berriro ere azpikontrataziora igaroz.

Hemeretzi langile kañan geratu ziren eta horietatik seik, kontratuetan hainbat irregulartasun zeudela ikusirik, kaleratzeagatik erreklamazioa egi- tea erabaki zuten. Mota honetako kontratuak bakarrik egin daitezke enpresa berria denean edo lan bat lehen aldiz gestio- natzen duenean. Kasu honetan ez zen ez lan berria ez lehen aldia egoitzak zerbitzu hori zuzenean kudeatzen zuena, gorago aipatu den moduan, bazitu- elako zuzenean kontraturiko lan- gile batzuk, nahiz eta gainera- ko lanpostuak azpikontratazio bidez bete. Beraz, zuzenean eskaintzen ari zen zerbitzua handitu besterik ez zuen egin.

Eibarko Epaitegiak erru- gabetzat jo zuen Iturbide Egoitza eta, beraz, ez zuen onartu kaleratzerik izan zenik. Erabaki honen aurka errekurso bat ipi- ni genuen Euskal Herriko Epaitegi Gorenean.

Kasu honetan epaia gure aldekoa izan zen, kaleratzea bidegabetzat joz. Erabaki honen

aurrian, Iturbide Egoitzak erre- kurtsua ipini du Madrilgo Epaitegi Gorenean. Beraz, azken epaiaren zain gaude, baina bitartean argi utzi nahi dugu geure jarrera zein den.

Madrilgo gorenak Euskal Herrikoarena berresten badu eta epaia gure aldekoa bada, egoitzak aukera izango du bakoitzari dagokion kalte ordaina eman eta lanean berriz ere onartzeko. Baina ezin dugu ahaztu egoitza Arrasateko Udalarekin lotura duen erakunde autonomoa dela eta, hori horre- la izanik, ezin dela onartu diru publikoarekin jokatzuz, kalte ordaina ordaindu eta gure ar- zoa konpontzea.

Zentzu honetan, hauxe eskatzen diegu bai oraingo udalari, bai datorrenari, egin diezaiotela aurre egoerari. Sin- dikatuok ez dugu etsiko lan- gile hauek beren lanpostuetan berriz ere onartu arte.

**LAB eta ELA**

## GAZTEOK DENA DUGU IRABAZTEKO

**E**kainean Egoitz Urrutiko- etxea, Jeronimo Prieto eta Joxemi Esparza euskal gazteen aurkako epaiketaren jarraipena izango da. Polizia- ren eta epaileen jukutriaren biktima izan dira Gazteriak izeneko euskal gazte mugimendu abertzalearen hiru kide hauek. Dagoeneko hilabete luzeak bete behar izan dituzte espetxean.

Urte gutxian ehundaka gazte euskaldun atxilotu, torturatu eta espetxeratu dituzte. Jazarpen egoeran bizi gara, fitxatu eta kontrolatu egiten gaituzte

saldoka. Euskal gazteak gatazka egoeran jaio ginen eta ez dugu bakerik ezagutu.

Euskal Herrian abian den prozesu politiko honetan euskal gazteriarri etorkizunari begira aukera berriak pizten zaizkion honetan, estatu frantsesak eta espainolak ez dute amore eman beren jokabide zapal- tzailean. Ez digute uzten gure herria eraikitzen, atzerritarren esku sartzerik gabe. Ez digute uzten gure herria bakean erai- kitzuten. Ukatu egiten digute eus- kal gazteoi bakerako eskubidea!

Bide horretan, ekimen zehatzetan gauzatzera goaz gure konpromisoa. Honela, pairatzen dugun jazarpena sala- tzeko eta argi uzteko gure esku- bideak geureganatzeko eta gure etorkizuna askatasunean, duin- tasunez, bakean eta demokra- zian eraikitzeke dugun kon- promisoa eta erabakigarritasuna, ekainaren 5etik 12ra Jarraiko hamar militantek eta Gazteriak-eko beste hamarrek gose greba egingo dugu Baio- nako katedralean. Ekainaren 12an, gainera, kale agerraldia egingo dugu Baionan. Aber- tzale guztiok Baionara!

**Arrasateko Jarrai**

## ZUZENKETAK

- EHEk sinadurak bildu zituen justizia administra- zioan euskara erabiltzeko eta ez udaletan zinegotzi elebidunak eskatzeko. (Arrasate Press 454).
- Josu Jauregik ez du San Viatorren ikasten, Gazte- luondon baizik. (Arrasate Press 453).

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

# ALDIBI



udarako aukera aparta



*Primera SLX*

- 4 edo 5 ate
- Lagunduriko direkzioa
- ABS
- Aire girotua
- Airbag bikoitza
- Ispilu elektrikoak
- Llantak
- Laino argiak

Prever planarekin 1.6 16v 2.590.000 pta

Prever planarekin 2.0i 16v 3.065.000 pta

Prever planarekin 2.0 TD 2.850.000 pta



*Almera*

- 3, 4, 5 ate
- 87cv
- Lagunduriko direkzioa
- Airbag
- Ispilu elektrikoak
- Lapurren kontrako sistema

Prever planarekin 1.4 16v 3 ate 1.675.000 pta

Prever planarekin 1,4 16v 4 ate 1.725.000 pta

Prever planarekin 1,4 16v 5 ate 1.675.000 pta

5 urteko bermea, aukeran



**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

ZIGARROLA, 1 - TEL.: 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE



Gidatu eta gozatu

# Ofiziale Elkarteen Gida

## Elektrizitatea

- **Aranzabal Koop. E.**  
Zerkaosteta, 15 ..... ☎ 943 79 68 21 / 670 57 53 83
- **Arrasate Elektrizitatea**  
Gipuzkoa etorbidea, 37 ..... ☎ 943 79 65 93
- **EYA**  
Iturriotz, 21 ..... ☎ 943 79 03 84

## Errotulazioa

- **Pando errotuloak**  
Gipuzkoa etorbidea, 6 (Legarre) ..... ☎ 943 79 79 70

## Igeltzaritza

- **Izcue Irurzun**  
Munar, 6 ..... ☎ 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Igeltsoak - Apaintzea

- **Pako eskaiolak S.L.**  
Markulete, 14 ..... ☎ 943 77 08 21

## Iturgintza

- **Egia iturgintza**  
Gipuzkoa etorbidea, 39 behea ..... ☎ 943 77 01 85
- **Txorrota**  
Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea ..... ☎ 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Margoak

- **Apain**  
Matiena, 3 - 1 ..... ☎ 943 79 61 56 / 689 04 91 17
- **JOVI**  
Ferrerias, 36 behea ..... ☎ 943 79 12 87
- **Serafin margoak**  
Ferrerias, 14 ..... ☎ 943 79 94 00 / 639 41 50 73

# Zeinek irabaziko ditu udal hauteskundeak Arrasaten?

Benetako emaitzak ekainaren 13an bertan jakingo dira.



**Josefina Perez**  
(56 urte)  
Etxekoandrea

Alkatea Txiron izan daiteke. EH lehenengo, bigarren EAJ-EA eta hirugarren PSE.



**Feli Iriarte**  
(53 urte)  
Etxekoandrea

Zubizarretak irabaziko duela uste dut. Bigarren EAJ-EA eta hirugarren PP.



**Mertxe Agirreurreta**  
(38 urte)  
Langilea

EH lehenengo, EAJ-EA bigarren eta PSE hirugarren.



**Felix Mari Antxia**  
(57 urte)  
Langilea

Euskal Herritarrok, EAJ-EA eta sozialistak hirugarren.



**Juan Ignazio Gabilondo**  
(47 urte)  
Langilea

Lehenengo EH, gero EAJ-EA eta hirugarren PSEkoak.



**Miriam Mondragon**  
(24 urte)  
Langilea

Lehenegoa Euskal Herritarrok izango da, igotzen ari da eta. Bigarren EAJ-EA eta hirugarren PSEk segituko du.



**Juan Lopez**  
(22 urte)  
Langilea

EAJ-EA, EH eta gero PSE.



**Richard Rodriguez**  
(20 urte)  
Ikaslea

EAJ-EA, EH eta PSE.

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

*Sagardotegia*  
**ITURROIETA**  
Astelhenetik asteazkenera enkarguz  
Ostegunetik igandera zabalik  
MENU ESKAINTZARIK ZABALENA AUKERAN  
Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 55 85  
ARAMAIO

**LAKET**  
Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis  
Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

# 11 ostirala

■ ZINEA

*Cookie's Fortune*, Alai zineman, arratsaldeko 22:00etan.

■ IRAKASKUNTZA  
EUSKARAZ

Euskal Herrian Euskaraz, Ikasle Abertzaleak, LAB sindikatuak eta Sortzen Ikasbatuaz taldeek kale bilkura egingo dute 19:00etan herriko plazan, "Euskal irakaskuntzaren alde!".

■ KONTZERTUA  
JAM ARETOAN

*Mago de Oz* eta *Leviatan* taldeak arituko dira Bergarako Jam aretoan, gaueko 22:00etan.

# 12 larunbata

■ ZINEA

*Es... El Gurú*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, eta *Ejecución inminente* 19:30ean eta 22:00etan.

■ ERGUIN ESKOLAKO  
JAIA

Erguin Herri Eskolako jaia egingo da, ikasturteari amaiera emateko. Txatxilipurdik antolaturik, lantegiak egingo dira, bai eta pailazoak, karate, gimnasia erritmikoko erakuskaldia eta musika. Horrez gain, haurrek egindako lanen erakusketa jarriko da eskola barruan.

■ MOTOR TXIKIAK

San Antolin inguruan Motor Txikien II erakustaldia egingo da 16:30ean, Arrasate Motorzale Elkarteak antolatuta.

■ TAKOLO, PIRRITX  
ETA PORROTX

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen "Baserrian" antzez-lana taularatuko dute Amaia antzokian. Ikuskizuna 17:00etan izango da eta sarre-ra 400 pta kostako da.

■ KALE AGERRALDIA

Eibar-Gasteiz autobidearen aurka Bergaran egingo den kale agerraldira joateko deia egin du Besaidek, 19:30ean.

■ MUSIKA EMANALDIA

Arrasate Musikaleko Orkestrak eta Oihuska boskoteak emanaldia eskainiko dute San Joan parrokiaren 20:00etan.

■ KONTZERTUA  
JAM ARETOAN

*Wasp* eta *Get Animal* taldeak arituko dira Bergarako Jam aretoan gaueko 22:00etan.

■ PARAPENTE ZALEAK

Ikarus taldeak urteroko parapente zaleen bilkura antolatuko du Urkulun, 12:00etan, Jauzia, Kurtzeberrietik.

# 14 astelehena

■ ZINEA

*Ejecución inminente*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

■ TRONBOI  
KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko tronboi taldeak kontzertua eskainiko du udaletxeko osoko bilkura aretoan, 19:30ean.

# 13 igandea

■ ZINEA

*Es... El Gurú*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, eta *Ejecución inminente* 19:30ean eta 22:00etan.

■ ARGAZKI RALLYA

"Argazki Bidez" izeneko argazki rallya egingo da 09:00etan hasita. Izena ASA elkartearen eman daiteke, 09:00etatik aurrera.

■ MARGO LEHIAKETA

Familia eta Gizarte Hezkuntzarako zentruak antolatuta, Aire Zabaleko XVIII margo lehiaketa egingo da Montteronen, 09:00etan hasita.

# 15 asteartea

■ ZINEA

*Ejecución inminente*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

■ LIBURU AURKEZPENA

Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzitako *Mende Laurdanean* liburuaren aurkezpena egingo da 19:00etan, udaletxean. Mikel Atxaga kazetariak, Juan Karlos Mugika Arabako Foru Aldundiko Kultura zuzendariak eta idazleak berak hartuko dute parte. Egileak *Arrasate Pressen* idatzitako hainbat artikulu agertuko dira liburuan.

## LAN ESKAINTZA

**EKIN EMAKUMEAK eta EUSKALAN** elkarteek egun erdirako eragile bat kontratatu behar dute.

**Eginkizunak:** bi elkarreentzako idazkaritza eta eragile lanak.

Hautaketa probetan parte hartu gura izanez gero, bidali/ekarri curriculum AEDra, uztailaren 2a baino lehen.



Informazio gehiagorako dei egin 943 77 12 28 telefonora edo etorri Pablo Urangaren 4an dugun bulegora.



# 16

## asteazkena

# 17

## osteguna

### ■ BOLO TXAPELKETA

Iturbide Egoitzak antolatutako bolo txapelketako finalak jokatuko dira, arratsaldeko 18:00etan.

### ■ ARRASATE MUSIKAL AMAIAN

Arrasate Musikaleko talde instrumentalak kontzertua eskainiko du Amaia antzokian, 19:00etan.

### ■ ZINEA

*Cube* filma eskainiko da 21:30ean, Amaia antzokian. Sarrera 450 pta kostako da.

### ■ ERRETIRATUEN IRTEERA

Iturbide egoitzako erretiratuek irteera egingo dute Getxora. Udako egitarauaren barruan antolatu dute irteera.

### ■ TRANSEXUALITATEA MINTZAGAI

Informazio eta Orientazio Sexualeko bulegoak "Transsexualitatea, errealitate bat" hitzaldia antolatu du Monterronen, 19:00etan. Hizlaria Ana Gutierrez izango da.

### ■ TXIKIRRI-TXIKIRRI MENDI IRTEERA

Eskoriatzako mendi elkarteak Txikirri-Txikirri II Mendi Irteera antolatu du ekainaren 20rako, hildako mendizale eskoriatzarren oroimenez. Izena ematea Eskoriatzako Mendi taldean (Olazahar 8) egin daiteke, ekainaren 14tik 18ra bitartean, 19:00etatik 21:00etara eta 500 pta kostako da. Irteera egunean bertan ere eman daiteke izena 06:00etatik 07:30eara, Eskoriatzako plazan.

### ■ MONDRAGON HOTELAK URTEBETE

Ostiralean, ekainak 11, Mondragon Hotelal bere lehenengo urteurrena ospatuko du. Horretarako Jurassic Band taldeak emanaldia eskainiko du 19:30ean. Gauean kafe-pianoan sari zozketa egongo da Gardoki trikitilariak girotuta.

### ■ EUSKARA IKASTEKO

Erdu-AEK euskaltegiak uztailen eta irailean egingo dituen euskara ikastaroetan izena emateko epea ireki du. Ekainaren 23a izango da azken eguna. Berri gehiago 943 77 03 69an.

### ■ BIODANTZA IKASTAROA

Biodantza ikastaroa antolatu du Arrasate Yoga elkarteak ekainaren 19tik aurrera. Izen ematea 943 79 35 76an.

### ■ EIBAR-GASTEIZ

Eibar-Gasteiz autobidearen maketaren erakusketa dago ikusgai Harresi aretoan. Erakusketa ekainaren 15a arte egongo da zabalik.

### ■ ANAGRAMA LEHIAKETA

Hezibide hezkuntza elkarteak Haur Hezkuntzako ikastolek kooperatiba bakarria sortuko dutela eta, anagrama lehiaketa antolatu dute. Lanak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaituko da.

### ■ TXATXILIPURDIREN UDALEKUAK

Txatxilipurdik udalekue-tan izena emateko epea ireki du Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Izen ematea ekainaren 10ean amaituko da. Dirua Kutxako 0010359511 zenbakian sartu beharko da aurretiaz.

### ■ MUSAKOLAKO KIROLDEGIA

Iturripe eta Musakolako frontoiak, futbol, tenis eta eskuasheko jolastokiak alokatu nahi dituztenek bilera egingo dute Musakolan ekainaren 16an, asteazkena, 18:00etan.

### ■ KANPOKO IGERILEKUAK

Ekainaren 14an irekiko dira kanpoko igerilekuak Musakolan. Egun berean barrukoak itxi egingo dira, irailaren 12a arte.

HARRIGARRIA!

*Hau bezalako preziorik ez duzu ikusiko beste inon*



SALOU

Hotel\*\*\*  
Pentsio osoa  
Ekainaren 19tik 26ra  
Prezioa pertsona bakoitzeko

24.675

PTA.tik  
HASITA

Ez duzu beste preziorik ikusiko

1

e

VIAJES EROSKI

BIDAIK

► Prezio Onak baino gehiago

LARUNBATETAN, 22:00AK ARTE EROSKI HIPERMERKATUETAKO BULEGOETAN

## USTEAK USTE

### Bukatu da kanpaina

**J**oanak dira Gurea zinema edo Aretxabaletako pilotalekua politikoei entzuteko betetzen ziren garaiak. Mitin handiak iraganeko kontuak dira, hemen behintzat.

Kartelada handiak eta errepideak eskuoriz beterik agertzen ziren sasoiak ere aspaldiko kontuak dira. Gaur egun askoz ere zarata gutxiago egiten da kanpainetan. Batetik, diktadura osteko egarria aspaldi asetu genuelako eta bestetik alderdiek beste bitarteko batzuk dituztelako.

Aurtengo kanpaina lasaia izan da. Arrasaten, behintzat, ez da burundara handirik atera. Komunikabideei begira prestatu dira ekitaldi gehienak. Alderdiek diru dextente gastatu dute buzoneoan, argazkiz beteriko mezuak zabaltzen.

Liskarra, eztabaidak eta gerra giroa telebista handietan eta zabalkunde handiko egunkarietan gertatu dira. Hala ere, jendea lasai ibili da; kalean ez da bat ere aztoramenturik nabaritu. Heldutasun seinalea ote?

Joxe Aranzabal



## Presoen osasunaz

\* Eugenio Iturriotz

**O**sasuna eta espetxea kontzeptu kontrajarriak dira. Osasuna buruaren eta gorputzaren ongizate egoera da. Espetxea, aldiz, zigorra da, eta zigorrak kalte egiten dio pertsonari.

Hona hemen nola azaltzen digun Joseba Sarrionaindiak bere espetxeko esperientzia: "Hotz egiten du, hezurretan itsastan den hotza, harri eta burdinazko hotza... Hemen go zapalkuntza hain da handia, ezen ez baita posible oreka pertsonal batera iristea. Bada, zapalketa mota guztiak eta batez ere pertsona mailako gradu goren batean agertzen dira gartzelan. Hemen —kasurik onenean ere— pertsona ez da zakur bat baino gehiago, ez da kortako aberea baino dohatsuagoa".

Espetxeak bere baitan du eritasuna: askatasun eza berez delako gaitza eta espetxeko egoerak luzarora gaitz zehatzak eragiten dituelako.

Euskal preso politikoaren kasuan, gainera, espetxe politika jakin bat

dago, presoak izorratzea bilatzen duena. Presoak badu, legez, bere osasuna bermatzen duen eskubidea. Baina legeak gauza bat dio eta errealitateak kontrakoa. Eskubideaz gain, medikuaren eta gaixoaren arteko uste ona funtsezkoa da gaitza osatzeko. Espainiako presondegietan, baina, medikuak espetxeetako funtzionarioak dira. Horrek erabat hausten du presoaren eta bere arteko konfiantza, askotan medikua funtzionario moduan portatzen baita eta ez osagile bezala.

Arazo hau gaintzeko, Espainiako Espetxeetako Lege Organikoaren 36,3 arti-

kuluak dio presoak espetxetik kanpoko mediku baten zainketarako eskubidea duela, beti ere presoak bere gain hartzen baditu zerbitzuaren kostua eta segurtasunak eragindako eragozpenik ez badago. Lege hau ez da askotan betetzen, batez ere segurtasun arrazoiak direla medio.

Presoek arazo handiak dituzte eta guk ere bai, beharrezko laguntza eskaintzeko. Hainbat arrazoi tarteko, dagoeneko hamahiru euskal preso politikok hil dira espetxean. Nik ezagutu dudan kasurik mingarriena Joseba Asensioarena izan da. Ziegan aurkitu zuten hilik, tuberkulosiak jota, Erdi Aroko presoak legez.

Arazo psikologikoak ikustea ere oso mingarria da. Ulertzekoak dira, gainera. Bakarturik egotea edozein lekutan da gogorra eta espetxeetan are eta gogorragoa.

Osasunaren ikuspegitik, ezinbestekoa izango litzateke ondoko neurri hauek hartzea:

- Inkomunikazioa behin betiko kentzea Espainiaren legeditik; baita presoek sakanak eta bakartze politika ere.

- Espetxeetako medikuak funtzionario ez izatea, mediku normalak baizik.

- Presoak Euskal Herrira ekartzea, beren familiengandik gertu.

“  
Espetxean, pertsona ez da zakur bat baino gehiago, ez da kortako aberea baino dohatsuagoa  
”

\* Sendagilea

**PEUGEOT**  
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**HIES  
EKIMENA**  
Astelehen, astearte eta ostiraletan  
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

# Arrasate

## LANAK

### OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

### URIBARRIN

Aparkaleku lanak eliza ondoan.

### AGERRE PLAZAN


Oraindik ez dira lanak amaitu.

### A-20 ETA ZALDISPEN

Oinezkoen pasabidea egiten hasi dira.

### JOSE LUIS IÑARRAN

Errepidea konpontzeko lanak.




**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**


## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 11**



**LARUNBATA 12**



**IGANDEA 13**

Ostareak eta lainoak tartekatuko dira. Tenperatura ez da aldatuko. Haizeak Iparraldetik joko du, ahul.

Behelainoa izango da goizean goiz. Egunean zehar, berriz, ostareak tartekatuko dira.

Lainoak areagotuko dira eta euria ere egin dezake. Tenperatura igo egingo da piska bat.

## Ilargia



**Ilberria**

Hauteskunde eguneko gaua, hilabeteko gaurik ilunena izango da. Ilberria izango dugu.

## Mezak

### Parrokia

**Larunbatean**  
 19:00 (elebiduna)  
**Igandean:**  
 09:00 (erdaraz)  
 11:00 meza nagusia (euskaraz).  
 12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

**Larunbatean**  
 19:00 (elebiduna)  
**Igandean:**  
 09:00 (euskaraz)  
 10:00 (erdaraz)  
 11:00 meza nagusia (euskaraz).  
 12:30 (erdaraz)  
 19:00 (elebiduna)

### Uribarri

**Larunbatean**  
 19:00 (elebiduna)  
**Igandean:**  
 11:30 (euskaraz)  
 12:30 (erdaraz)

### San Andres

**Ostiralean**  
 18:30 (Otoitz ordua)

**Larunbatean**  
 18:30 (Bezpera abestiak)  
 19:00 (elebiduna)

### Igandean


10:00 (erdaraz)  
 11:00 (euskaraz)  
 12:30 (erdaraz)

### Santa Teresa

**Larunbatean**  
 19:00 (elebiduna)  
**Igandean**  
 10:30 (erdaraz)  
 11:30 eta San Isidron (euskaraz)  
 12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**

**%90,4**



## Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Dohaineko autobusa lortu zen eskola publiko-etako ikasleentzat.
- Goikobaluk Aita Madinaren "Kriskitin Kraskitin" pieza bat estreinatu zuen Arrasaten.
- Aldibi txapelkun geratu zen Zaldibarko futbito txapelketan.

## astea bi hitzetan

### ■ ATBren teletestu berria

Asteartean ATBk erabat berriztutako teletestua aurkeztu zuen. ATBren programazioaren berri emango du, baita publizitatea eta informazioa ere, beti ere programaziorik ez dagoenean. Informazioari dagokionez, goardiako botikak, ARKOKO telefonoak, udal zerbitzuetakoak eta larrialdi zerbitzuetako telefonoak azaltzen dira. Dena den, poliki-poliki edukiak zabalduz joango dira. ATBko teknikariek eta disenatzaileek tresneria eta programa informatiko berriak erabili dituzte teletestu berria eratzeko.

### ■ Beroa eta ekaitzak

Asteazkenean izugarritzko ekaitza izan genuen. Ordu erdian tenperatura ia 10 gradu jaitsi zen, 82 km/orduko

haizeak izan genituen eta hamar minutuan 6,3 litro ur bota zuen Arrasaten. Deba Ibaiaren ur mailak 40 cm. egin zuen gora ordu erdian. Arazorik larrienak Musakolan izan ziren, San Isidro elizaren aurrealdean. Izan ere, ura pilatu zen eta ordu laurdenez autoek arazoak izan zituzten pasatzeko. Azkenean Zubillagako suhiltzaileak etorri ziren eta arazoa segituan konpondu zen.

### ■ Bi karrera gehiago

Mondragon Unibertsitateak beste bi karrera eskainiko ditu datorren urteko aurrera: Industria Ingeniaritza eta Informatikako Ingeniaria. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren onspena jasotzea besterik ez da falta. Dena den, unibertsitateko ordezkarien ustez, Eus-

ko Jaurlaritzak laster baimenduko ditu, datorren ikasturtean ematen hasteko moduan.

### ■ Udalak Aldai berreskuratuko du

Udalak berreskuratu egingo ditu Aldaiko hilerriko lurrak, baita bere baitan 57 panteoi dituztenak. Azken hauek San Kristobalera aldatzea onartu ez zuten familienak dira. Izan ere, panteoiak eskuratu zituztenean, Administrazioak 99 urterako eman zien lur zati horiek erabiltzeko eskubidea. Batek baino gehiagok epe hori bete barik du eta hori dela eta, askok ez zuten onartu udalaren trukea. Orain, aldiz, Aldaiko kanposantua berdegune izateko erabiltzea pentsatuz denez, udalak berreskuratuko egin du jabegoa.

### ■ Harrobien aurka

Ostiral arratsaldean Ekologistak Martxan-Eki taldeak harrobien aurkako kanpaina hasi duela iragarri zuen prentsaurrean. Hiru eskaera nagusi egiten dituzte ekologistek: Arrasaten itxita dauden hiru harrobiak berreskuratzea; San Joxepeko harrobiak indarrean dagoen legedia betetzea eta Kanpanzar eta Kobateko harrobiak ixtea. Izan ere, ekologisten ustez, bi harrobi hauek kalte handia egin diote ingururi.

“

(Tubacex-eko Kontseiluko lanak) ondo etor dakizkioke Ardanzari, enpresa eremuan trebatzen joateko eta enpresarekin inoiz izan zuen harremana, MCCren finantza erakundearen Euskadiko Kutxan zebilenean, berreskuratuzko. Bien bitartean denbora eta dirua irabaz litzake —Tubacex-eko Kontseiluak 100 milioi pta poltsikoratu zituen 1998an eta 97 milioi 1997an—, euskal kutxen batasunerantzako urratsak egiten diren bitartean. Izan ere, behin baino gehiagotan, Ardanzaren izena aipatu da kutxa bateratuaren lehendakaria izateko”.

### KIRRU ARTEA

Cinco Dias  
1999.6.2



### ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

### ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

### BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tel.: 943 79 91 84

ARETXABAETA

### URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tel.: 943 79 87 74  
ARRASATE

# Nortasun agiriak hilabete barru

Nortasun agiria egiteko edo berrizteko txanda hartu duenak, datorren astean Arrasate Pasealekura joan beharko da, lehen IMI egon zen tokira, hain zuzen ere.

Bi argazki eta nortasun agiri zaharra eraman beharko ditu. Egin beharrekoak egin ostean, egiaztegi bat eman go diote. Hilabete barru hementxe izango du agiria bueltan.

## TXANDAKA

Lehen berrogeita hamar zenbakiak dituzten herritarrek goizeko 09:45ean izango dute txanda.

Ordu bete geroago, 51tik 100era artekoen txanda izango da eta 12:45etik aurrera 101etik 188ra artekoena. Orain arte jasotako eskari guztien



Nortasun agiriak aspaldiko IMIn egongo dira.

agiriak egingo dira horrela.

Datorren hilabetean etorriko dira berriro, ordua arte jasotako eskaerak egitera eta honelaxe izango da hementik aurrera: hilabetean behin. Arrasate Deba Garaiko gune

bilakatu nahi da modu honetan.

Hori dela eta, Bergara, Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaletakoak hona etorri beharko dira nortasun agiriak egitera edo berriztera.

## San Diegotik Arrasatera



Hemezortzi lagun etorri zaizkigu San Diegotik (EEBB) Arrasatera. Hamabi hango unibertsitateko ikasle eta irakasleak dira; beste seiak, berriz, San Diegoko herritarak. Kooperatibak zuzenean aztertzeraz etorri dira. Estatu Batuetan enpresa modu hau nola ezarri asmatu nahi dute.

Bisitak egiteko eta hemengo jendea ezagutze-ko aprobetxatu dute bidaia.

## Sanjuanetako programa

Bihar goizean hasiko da San Joan jaien egitaraua, txirringulari lasterketarekin. Horrekin batera, bai datorren astean bai asteburuan ere mota askotako ekitaldiak izango dira herrian. Dena dela, betiko moduan, jaiak San Joan bezperan hasiko dira ofizialki, ekainaren 23an. Asteazkenean, beraz.

Iaz baino bi milioi pezeta gehiagoko aurrekontua dute aurtengo jaiak. Lau ekitaldi daude nabarmentzeko moduan aurtengo San Juanetan. Batek, asteartean Nagusien Danborradan emakumezkoek osotuko duten konpainia berria. Bigarrenik, larunbatean egingo den erraldoien bilkura. Nafarroatik, Arabatik eta Bizkaitik etorriko dira erraldoiak eta dultzainajoleak. Hirugarren ekitaldi aipagarria, karreretako auto zaharren rallya litzateke. Larunbatean Tolosarako bidea hartuko dute. Igandean, berriz, Tolosatik Arrasatera itzuliko dira, Loiolan eta Bergaran geratu eta gero.

## TXOZNAK JAIETAN

Iaz ez bezala, aurten, txoznak izango ditugu herriko jaietan. Maiatzaren hasieratik dabilza gai honekin lotutako bilerak egiten eta oraingoan, behintzat, bost taldek jarriko dute txozna: Jarrai, AEK, AABB, EHE eta Errugbi Taldea. Denon artean, makinatxo bat ekitaldi antolatu dituzte.



**UNZUETA**  
JATETXEA

Karta  
Menu bereziak  
Eguneko menua  
Plater konbinatuak

Zabola auzoa, ARAMAIO.  
Tel.: 945 44 50 95



**Danona**  
KARROZERIAK

**Konponketak, txapa eta pintura**

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

# UDAKO Ikastaro Trinkoak

# 99

MEKANOGRAFIA,  
ORDENAGAILUZ

INFORMATIKA

INTERNET

MICROSOFT PROJET

AUTOCAD

INFORMATIKA  
PROGRAMAZIOA

WINDOWS NT

KONTABILITATE ETA  
MERKATARITZA  
GESTIO MEKANIZATUA

GIZA BALIABIDEEN  
ADMINISTRAZIOA

ZERGEN GESTIOA  
PYMEetan

LAGUNTASUN  
ESKOLAK

- Ingeniaritza
- Enpresa
- Eta beste

abuztuan ere  
prestatzen da

INFORMATIKAKO  
TRESNEN  
MANTENIMENDUA  
ETA KONPONKETA

MUSIKA INFORMATIKA  
(MIDI sistema)

AKADEMIA

# BASTIDA

INEM-6K HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb., 3 - 2. Arrasate  
Tel.: 943 79 35 33  
Fax: 943 79 06 28  
e-mail: bastida@tsai.es

## Organo emaile berriak

Bihotzeko eta giltzurruneko trasplantea izan dutenen elkar- teek 130 organo emaile berri lortu zituzten larunbatean. Goizeko hamarretatik ilun- tzeke zortziak arte mahai bat jarri zuten Portaloian. Azke- nean pozik geratu ziren lor- tutako emaitzarekin.

Organo emaile berriak lor- tzeaz gain, herritarrak kont- zientziaztea ere nahi izan zuten. Izan ere, Euskal Herriak organo emaile asko baditu ere, oraindik ere eskaria eskaintza baino handiagoa da.



130 organo emaile lortu zituzten.

## Iturriak berreskuratuz

Udalak herriko bi iturri kon- pondu eta lanean jarriko ditu: Uribarri auzoko Gorriko eta Gesalibar auzoko Iturri-Gorri. Lehenengo iturria 1977. urte- tik ez da erabiltzen, Euska- diko Kutxa egin zenetik, hain zuzen ere.

Orain, aldiz, berreskura- tzeke aukera ikusi du udalak. Urkuluko ura sartuko zaio iturri honi, kutsadurarik izan ez dezan. Iturri hau berres- kuratzeko udalak ia bi milioi pezeta gastatuko ditu.

Iturri-Gorri, berriz, azken bi urteotan egon da agortu- rik. Lehen zegoen moduan berreskuratuz nahi da. Honek, metalura ematen du. Kasu honetan, udalak ia lau milioi pezeta erabiliko ditu lanak egiteko. Dena dela, ez dago egitamu berezirik, lehenengo iturriak berreskuratuzko; beharren edo ahal denaren arabera egiten da.

Bi iturri hauen berresku- ratzarekin agian, berriz ere ikusi ahal izango ditugu Gesa- libako eta Uribarriko bizila- gunak pitxarrarekin ura garraiatzen!

## Astlehenean, Arrasate Press berezia

Datorren astlehenean *Arra- sate Pressek* ale berezi bat kaleratuko du, hauteskun- deen emaitzen berri eman- go duena. Azken aldietan bezala, lau orrialde izango ditu, bi koloretan egingo da eta Arrasateko eta inguru- ko herrietako emaitza guz- tiak ekarriko ditu.

Egunkariak saltzen diren tokietan jaso ahal izango da, doan, erositako edozein egunkariarekin batera. Baita bestelako tokietan ere.

## Ongarri birziklatua

“Parques y Jardines de Aba- diano” enpresak konpost egi- teko lantegi bat jarriko du abian Arrasaten. Kanpanza- rrerako bidean zegoen Akei zabortegian jarriko da. Plan- ta honen bitartez, urtean zehar inausketaren eta belar moz- ketaren ondorioz geratzen diren landare eta adarrak makina xehetzaile batean sar- tu, guztia txiki-txiki egin eta sei-zortzi hilabetez estali egingo da. Epe hau pasatuta, bestelako lorategietan onga- rri moduan erabiliko da.

## Pilar Mondragon Espainiara

Pilar Mondragon iheslari arrasatearraren abokatuak, Jon Enparantzak, ziurtatu egin du gobernu frantsesak ostiralean Espainiaratuko duela Pilar. Asteburuan Pila- rrek oraindik ez zekien ezer eta erabakia zuen gose gre- ban segitzea. Senitarkeok adierazi dutenez, 45 kilo ditu orain eta oso makal dago. Amnistiaren Aldeko Batzordeak bilkura eta kale




agerraldia antolatu ditu osti- ralerako, arratsaldeko 19:30ean.

# Miguel de la Cuadra Salcedo Auzo Lagunen

Auzo Lagunek eta Argenteria Fundazioak hitzarmen bat sinatu dute. Horren arabera, bankuetxeak urtero antolatzen duen Quetzal Bidea Euskal Herriaren inguruetan dabilenean, Arrasateko enpresa arduratuko da bidaiarien janariez.

Aurten Santiago bidea egingo dute eta hainbat egunetan inguru hauetan ibiliko dira: Pirinioetan, Arantzazun, Lizarran, Santo Domingo de la Calzadan, etab. Aldi horretan Auzo Lagunetik aterako da, egunero-egunero, espedizioa osatzen duten gazteen janaria.

Miguel de la Cuadra Salcedo bidaiari eta abenturazale bilbotarrak zuzentzen du Ruta Quetzal delakoa eta, ohitura duen legez, hasi aurretik, bera



Miguel de la Cuadra Auzo Lagunek prestaturiko jakiak dastatzen.

dabil aurtengo bidea egiten. Joan den asteazkenean Arantzazun eta Oñatin izan zen, bidaia prestatzen, eta Arrasaterako etortzeko aprobetxatu zuten, Auzo Lagunek Uribarrin dituen instalazioak bisitatuz.

Auzo Laguneko arduradunek instalazioak erakutsi zizkieten. Miguel de la Cuadrak arretaz begiratu zituen Auzo Lagunek jakiak prestatzeko erabiltzen dituen prozesuak. Probatu ere probatu zuten mokadurik. Bai De la Cuadra bera eta bai Auzo Laguneko arduradunak pozik agertu ziren bien artean lortutako akordioaz.

Quetzal Bideak hiru bat hilabete irauten du. Aurten arrasatear bat izango da aukeratuen artean: Eluska Zabalo margolari eta idazle gaztea.




**ZUZEN-ZUZENEAN  
FABRIKATIK  
ZURE ETXERA**

**Super  
Armeko**

Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 943 79 91 75

## Alkate ohiak



### Xabier Zubizarreta (1987-1997)

Arrasatek bizi dituen alkate ohien artean, Xabier Zubizarreta da gazteena eta urte gehien egin dituen alkateztan. Besteak politikatik urrutu samar bizi dira, baina ez Xabier: Arrasateko alkategai ezezik, Gipuzkoako diputatu nagusi izateko hautagai ere bada eta.

Hamar urtez izan zen alkate, hiru garren agintealdia bukatzeko bi urte falta zitzaizkiola, HB aginte guneetatik kentzea helburua zuen zentsura mozio batek kargutik kendu zuen eta. Aurretik beste bi mozio gainditu zituen.

Bere agintealdia gogoratzeko orduan, gaziak eta gozoak gogoratzen ditu: Uarkapeko arazoa gazienetan. Aukearen sorrera, euskarazko herri komunikabideen jaiotza eta Santa Barbara parkearen txukuntza, besteak beste, alde gozoan.

Gaitasun handia ikusten dio Arrasateri, aurrean dituen erronkei gano-raz erantzuteko; etorkizun oparoa ikusten dio, horregatik. Hala ere, lortutakoan ez lokartzea eta mundura zabaltea eskatuko lieke arrasatearrei.

## Zu alkate bazina?

1986an paraplejiko geratu zen Atotxako futbol zelaian, jende olde bat gainera etorri zitzaionean. Harrezkero gorpildun aulki batean dabil. Bederatzi urte darama JMA enpresako harrera gelan lanean, telefonozain eta harrera-gile moduan. "Alejandro Altuna, egunon!", erantzuten du behin eta berriro, pintza batzuen bidez deiak bideratzen dituen bitartean.

— Alkate bazina, zein izango litzateke hartuko zenukeen lehenengo erabakia?

— Herrian dauden espaloi, maila eta gorabehera guztiak moldatu egingo nituzke, elbarriok ez dezagun eragozpenik izan ibiltzeko orduan. Parkin gehiago ere jarriko nituzke.

— Nolako dohainak izan beharko lituzte alkate batek?

— Jatorra eta irekia izan beharko litzateke, jendearekin harreman ona izateko gai.

— Jende prestaturik ikusten duzu zerrendetan?

— Jendeak beti egingo ditu akatsak, baina oso larriak ez diren bitartean...

— Zenbat aldiz izan zara udaletxean?

— Sarritan. Ospitalea eta udaletxea ondo prestaturik daude elbarriak eroso ibil gaitezten. Monterron eta kiroldegia, berriz, txarto, batez ere azken hau.

— Elbarriek hartzen duzue parte, nola edo hala, udaletxean?

— Noiz edo behin egin didate galderaren bat edo beste. Horrezaz gain, gertatzen da elbarrion artean ez dagoela tratu larregirik. Elkar ezagutzen dugu, baina besterik ez.



Mikel Otxoa

— Zeintzuk dira elbarriek dituzten arazorik larrienak?

— Tokietan sartzeko eta ibiltzeko irispideak; eragozpen larri aurkitzen ditugu. Jendea, ostera, ondo portatzen da gurekin.

— Zer gomendatuko zenioke hurrengo alkateari?

— Eskuak garbi izan ditzala, beti herriaren alde egin dezala eta arazoak ahalik eta hurbilenetik jarrai ditzala, udaletxean gotortu barik.

— Zeintzuk dira Arrasateri ikusten dizkiozun arazorik larrienak?

— Aparkaleku falta, trafiko handiegia eta etxebizitzaren prezioa, oso garestiak dira. Gazteentzat oso zaila da etxebizitza bat alokatzea.

— Zer espero duzu hauteskunde hauetatik?

— Hemengo alderdiek gora egitea, espainolak jaitea eta ea bakebidean aurrera egingen dugun.

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel: 943 79 67 76



## Printzak

❖ Alderdiak joan dira, poliki-poliki beren hauteskunde programak kaleratzen. Lehen a PSE-EE izan zen. Zortzi orrialdeko aldizkaritxo bat atera zuen, koloretan. Ondoren EH etorri zen, 48 orrialdeko liburutxo batekin, hau ere guztiz koloretan. EAJ-EAk ere 44 orrialdeko aldizkari EBk ere bi atera ditu, 60 eta 12 orrialdekoak, zuri-beltzean.

❖ Zenbait zerrendatan familiarterko hautagaiak azaldu dira. Ezker Batuan, adibidez, **Joseba Ugalde** zerrendaburuak emaztea du hirugarren tokian, **Marisa Uriarte**. PSE-EEren zerrendan ere **Gregorio Atxutegi** eta **Blanca Roncal** senar-emazteak agertzen dira. Baita **Petri** eta **Rafaela Romero** ahizpak ere. EAJ-EAn, berriz, horrelako asko dago. **Jose Mari** eta **Enrique Loiti** anaiak, **Julian** eta **Itxaso Garai** aita-alabak, adibidez. Zerrenda horretan **Jose Mari Urizar Ametzuk** **Jasone Giraldo** bere erraina du hamabigarren tokian.

❖ PPko ordezkariak agertu ere ez dira egin Arrasaten kanpaina osoan zehar. **Antonio Palacios** Gasteizen ibili da, Arabako PPren antolaketa lanetan. Bozketa egunean hementxe izango dira, uzta jasotzen.

## Quisiera ser alcalde...



Jose Mari Loiti

Orain zortzi urte, Oñacar enpresan zebilela, lagun batzuek EAJ alderdiko zerrendaburu izatea proposatu zioten. Lehenengoan kalabazak eman zizkien. Haiek etsi ez, ordea, eta berriro joan zitzaizkion. Bigarrenean, familiarekin berba egin eta baietz. "Udalak aldaketak behar zituen eta prest nengoen herriaren alde lana egiteko", dio irribarretsu.

Basoan ibiltzea gustatzen zaio, perretxikoak hartu, pasiatu eta eguzkia hartuz. Marraztea ere atsegin du, baina apenas du astirik bi zaletasun horiek betetzeko. Oso txirrinuzalea da, gainera. Bizioak aipatzekotan, agian lagunek leporatzen diotena, lan larregi egiten duela, alegia.

Zintzotasuna estimatzen du gehien gizakiengan, taldean lan egiteko ahalmena eta hitzekoa izatea.

Zaila egiten zaio bere buruaz hitz egitea, baina uste du baikorra dela izatez eta baduela etorkizunean pentsatzeko, erronkei aurre egiteko eta lan desberdinetan jarduteko ahalmena.

Pasiatzea gomendatzen die arrasatearrei, Santa Barbara, Monterron eta kanposantua bisitatzea, herria nola doan aldatuz ikus dezaten.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

## Programa-berandu iritsi zen



**Ekainak 3.** Euskal Herriarrok taldeak prentsa agerraldia antolatu zuen Arrano elkartearen datozen lau urteetarako egitasmoa aurkezteko. Prentsaurrea bukatu eta handik bost minutura iritsi ziren programak Gasteizko irarkolatik.

## EAJ-EA udaletxean




**Ekainak 3.** EAJ-EA koalizioak ere egun bera aukeratu zuen egitasmoaren berri emateko. Udaletxeko osoko bilkura aretoan egin zuen, alderdi bietako jendearen aurrean.

## Festa giroan



**Ekainak 4.** EHk jende ugari bildu zuen Sebero Altube plazan egin zuen ekitaldi politikoan. Hasteko, pintxoak, sagardoa, ardoa eta trikitixa. Ondoren, Xabier Zubizarreta zerrendaburuaren hitzaldia etorri zen.

## Ezker Batuaren ekitaldia



**Ekainak 10.** Ezker Batuak ekitaldi bakarra antolatu du Arrasaten. Monterron aukeratu zuen programa aurkezteko. Antton Karrera Gipuzkoako diputatu nagusi izateko hautagaia zen etorzekoa.

### Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57



Santana auzoa, 4 etxebaia Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



NARE  
psikologoak


Haurrak - helduak - bikoteak  
RPS: 292/98

Isasi, 17 - 1 • EIBAR •  
Tel.: 943 20 05 95

Zure alde ari gara lanean



ezker batua



*pailazoak*

**BASERRIAN**

**AMAIA ANTZOKIA**

**Ekainak 12**  
**larunbata, 17:00etan**  
**Prezioa: 400 pta**

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA

Kultura Salla ■

# Lehenengo zortzimilakoa



Hau izango da espedizioak egingo duen gailurrerako ibilbidea.

**“Geroz eta gutxiago gelditzen da. Bai, baina, oraintxe ordaindu egingo nuke gelditzen diren egun horiek konturatu barik pasatuko balira”. Hori xe zioten Broad Peak mendia igotzera doazen sei mendizaleek. Mikel Arana, aramaioarra, Jose Luis Martin eta Josu Pereda arrasatearrak eta Xabier eta Pablo Rozas eta Josemiel Aranzadi, hiru hauek lasartearrak. Sei ek osatzen dute Broad Peak 99 espedizioa eta igandean, ekainak 13, Bilbon hartuko dute Islamabaderako hegazkina.**

**Z**ortzi milako bat igoko duen Arrasateko lehenengo espedizioa osatzen dute sei mendizale hauek. Urtebete inguru igaro dute bidaia prestatzen eta azkenean iritsi

da hegazkina hartzeko unea. Honelako bidaia bat egitea nola otu zitzaien galdetzean, “txiripaz” izan zela diote. Lasartearrek G-1 mendia igo nahi zuten, hau ere Karakorum mendilerroan. Arrasatearrek, ordea, hasieratik nahi zuten Abruzosko dukeak 1909an ikertu zuen mendia igo. Azkenean, arrasatearren asmoak egin zuen aurrera, “agian zertxobait aurreratua go zeudelako prestatze lanean”. Broad Peak mendia, Txina eta Pakistango mugan dagoen zortzi milako bat da. Zehazki 8.047 m ditu. Inñutarregi anaiek 1997an igo zuten.

Prestaketa lanetan iazko irailean hasi ziren. Azken lau hilabeteotan astero egin dituzte bilerak. Esperientzia hau “elkarrekin egiten dugun lehenengo da. Izan ere, honen

aurretik ez genuen elkar ezagutzen”.

Lasartearrek Arrasaten bizi eta lan egiten dute. Jakin zutenean Arrasateko lagun talde bat espedizio bat prestatzen ari zela, haiekin harremanetan jarri ziren. “Horrela jakin genuen elkarren berri, eta oraindik ere elkar ezagutzen ari gara”. Diotenez, mendian aritzeko komeni da ondolan daramazun laguna ezagutzeara. “Bai, baina, bere alde onak eta txarrak ditu. Gu elkar ezagutzen ari gara oraindik eta horrek ere bere berezitasuna ematen dio gure asmoari”.

Baina nolatan horrelako asmoa? Mendizaleak zarete la jakin dugu, baina mendizale guztien asmoa da horrelako langintzatan sartzea? “Ez, denena ez, ezta gutxiago ere. Baina, zergatik goaz? Ez dugu, bada, adina horretarako?”, batek. “Beno, nik helduagoa izatean nahi nuen egin honelako bat, baina tira, orain egin behar bada, orain egingo dut”, besteak.

“Bai oraintxe da garaia. Jesukristoren adina dugu. Denok ditugu 33-35 urte bitartean. Sasoian gaude eta igo egingo dugu”, hirugarrenak.

Bai, baina istiluak piztu dira orain India eta Pakistan artean dagoen alde horretan! “Bai, horixe da agian ikaratzten gaituena. Igandean goaz



Mikel, Joxemi, Xabi eta Jose Luis joango dira Broad Peak...

eta ezin bagara mendira igo? Hara joan eta mendira igo barik itzultzea, lagatzen ez gaituztelako... Bai, agian horrekin pentsatu beharko genuke, baina dagoeneko ez dago atzera egiterik. Urtebete daramagu hau prestatzen. Lanean baimena eman digute eta babesleak ere lortu ditugu. Mendia igotzeko baime-na ere eskatu dugu... Ez,



Broad Peak mendiaren hainbat ikuspegi.

# egitera Broad Peakera



go Broad Peakera Josu eta Pablarekin batera.

aurrera segituko beharra dugu. Lan gehiegi egin dugu honen alde”.

Hemen jaso dudak kontaktuz hau, espedizioa osatzen duten sei lagunekin izandako solasaldiaren zatitxo bat baino ez da. Ilusioz beterik zeuden seiak eta urduritasuna izkutatu ezinik egiten zuten berba.

Ez dira inoiz elkarrekin honelako mendi handi batera joan. Seiak igo duten mendirik garaiena Perun dagoen Huaskaran mendia da, Andetako bigarren mendirik garaiena (6.800 m). Baina hau ere, bakoitzak bere aldetik igo du.

Broad Peak igozteko era baki dute orain. Diotenez,

**KOKAPENA**  
Broad Peak mendia Karakorum mendilerroan dago. Pakistan eta Txinaren arteko mugan. Baltoroko glaziarraren gainean dago, Concordiatik oso gertu.  
Han inguruan daude K-2, Hidden Peak, Gasherbrum I eta II, Chogolisa, Trango Dorreak...

**HISTORIA**

- 1954-VII-9: Diecemberg, Wintesteller eta Schmuck alemaniar-austriarrek igo zuten.
- 1975: Poloniar batzuek erdi aldetik igozteko lortu zuten.
- Enric Pujol eta Manuel Hernandez kataluniarrak iritsi ziren gailurrera.
- Renato Casarotto italiarrak bakarrik igo zuen Iparraldeko gailurra.
- Urte berean, emakume poloniarren espedizio bateko bi kidek igo zuten.
- Patxi Ibarbia azpeitirra izan zen gailurra egin zuen lehenengo euskalduna. Atzetik etorri dira Juanito Oartzabal, Mari Abrego eta Alberto eta Felix Inurrategi.

**EGIN BEHARREKOAK**

- Islamabad hiriburura iritsi eta Rawalpindin administrazioarekin egin beharrekoa egin ondoren, janaria erosi.
- 30-40 orduko bidaia autobusez Skarduraino. Handik beste 150 km, alokatutako auto batean Askole herriraino, Karakorumen sartu aurretik dagoen azken herria.
- Eramailak kontratatu.
- Hamabi eguneko ibilaldia Baltoroko glaziarreraino.
- Oinarrizko kanpamentua glaziarrean jarri, 4.850 m.tan.

Karakorum mendilerroan dauden lau zortzi milako horietatik “errazena” da eta horrek ere erabakia hartzerakoan asko laguntzen du. Gainera, “ohiko bidetik igoko gara”.

## IBIDALDIA

Valtoroko glaziarra zeharkatuko dute eta oinarrizko kanpamentua 5.800 m.ra jarriko dute. Igoera txikiak egingo dituzte bigarren kanpamentua jarri aurretik, egokitu arte. Bitartean, bigarren kanpamentura igoko dituzte gauzak. Bigarrena, 6.300 m.ra jarriko dute eta gauza bera egingo dute

hirugarrenarekin ere, 7.100 m.tan.

Hiru kanpamentuak presatutakoan, oinarrizko kanpamentura jaitsiko dira. Gailurrera joatea erabakitzen dutenean, bi egun beharko dituzte hirugarren kanpamentura igozteko. Azkenengo tartea, 947 m.koa, pisurik barik egingo dituzte.

## GERRA ARRISKUA

Maiatzaren 9an gerra hotsak piztu ziren berriro Katxemira herrialdean India eta Pakistan artean. Mende erdiz luzatzen dira lurralde horren subirano-

tasunaren gaineko tira-birak. Bi herrialdeek nahi dute lurralde hori eurentzat eta oraindik ez dute urte hauetan guztietan arazoa konpondu. Azkenengo egunotan areagotu egin dira bi armaden arteko isitluak eta kontuan izanda Himalaia-ko mendikatea Katxemirako lurraldean dagoela, Arrasateko espedizioak kontuan izan beharko ditu istiluok, izan ere, espedizioarekin batera militar bat joaten da derrigorrez. ■

Marijo Deogracias

# Euskara ikastaroak ERDU AEX euskaltegian

Uztailean eta irailean,  
3, 4 edo 5 ordu egunero.

- Maila guztiak.
- EGA ikastaroak.

Matrikula epea: ekainak 23  
Udalaren laguntzaz / Beka sistema.

Informazioa eta matrikula:

ERDU AEXn  
Garibai, 14, 3.a • Tel.: 943 77 03 69




segi.  
euskara ikasi



matrikulatu euskaltegi eta barne

altegi eta Internetegietan matrikulatu euskaltegi



## Heriotza Asegurua

### Bidaian laguntza

Munduko edozein lekutatik,  
garraioa barne.

### Heriotzak

Zerbitzurik onenak, preziorik onenetan

### Aseguru honen jabe zara?

Ez dio axola, zatoz eta hurbil zaitetz  
geure bulegora.



**MAPFRE**

Garibai Etorbidea, 16  
Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22

Arrasate Pasealekua, 37  
Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04

# Musika: mundu guztiak ikasi beharrekoa

Jesusi Etxeberriak 37 urte darama arrasatearrak musika kontuetan hezitzen. Bera hasi zenean, 1962. urtean, ez zegoen kontserbatorio edo antze-korik. Beraz, zuetariko batek baino gehiagok musika irakasle izango zenuten seguraski. Hamar urtez halaxe aritu zen, Arrasate Musikal jaio zen arte.

Solfeoa, txistua, pianoa eta gitarra erakusten hasi eta orain, horietaz gain, soina eta kantua ere erakusten ditu. Eskolak goizez zein arratsaldez ematen ditu Jesusik. Era guztietako ikasleak ditu.

## TXIRIPA NAGUSI

Musika ikasketak bukatu eta "On Jose Maria Arizmendiarraren iloba batek eskolakan hazi zituela esan zidan. Harekin hasi nintzen eta gero bere lagun bat etorri zen; haren atzetik beste bat..., orain arte. Hamar urtez nire etxebizitzan eman nituen eskolak. Gero hona etorri nintzen".

—Inoiz baino gusturago dabil orain Jesusi bere lanbide honetan. Izan ere, lehen musika kontu hauek beti azterketak eginez bideratzen ziren. Orain,



"Bost urteko haurretatik hasi eta 75 urteko pertsona bat ere badut".

aldiz, LOGSEk ezarritako sistema berriaren arabera, musika azterketarik egin barik ikas daiteke. "Haur asko apur bat behartuta etortzen ziren eta batek baino gehiagok oso txar to pasatzen zuten. Orain, aldiz, datozenak nahi dutelako datoz, musika maite dutelako. Hone-taz gain, lehen irakasteko erabiltzen zen metodoa eta orain erabiltzen dena zeharo bestelakoak dira". Askok, musika ikasketa guztiak Jesusirekin

egin dituzte eta orain kontserbatorioetan dabilta irakasle.

Musika oso garrantzitsua da pertsonentzat Jesusiren ustez, "munduan dagoen gauzarik mirengarriena da musika. Irakaskuntzan orain ematen dioten garrantzia baino gehiago eman beharko lioke-te". Norberaren erraztasunari buruz, berriz, "pertsonaren belarria hezi egin behar da, musikara ohitu. Berdin da

hasieran ez badago erraztasunik edo oso motel doan, poli-ki-poli egin egiten da. Horre-xegatik musikan komenigarria da pertsona lehenbailehen has-tea. Nire ustez bost urtekoa da adinik egokiena".

## MUSIKA BARRUAN

Txikitandik musikarekiko zaletasun handia erakutsi zuen Jesusik. Bide honetan bere aitaren eta bere izeba Sor Benitaren laguntza paregabea jaso zuen. Orduan Arrasateko bandako zuzendaria zen Justo Munarriz izan zuen lehenengo irakasle. Pianoa eta solfeoa ikasi zituen urte mordoan. Juanito Arzamendirekin bukatu zituen piano ikasketak. Ondoren, Francisco Escudorekin Kontrapunto eta Fuga ikasi zituen. Hamahiru urte zituela, bere izeba Sor Benitak Zaragozara eraman zuen piano eta solfeo azterketak egitera. Jesusik egun berean gaintitu zituen bi ikasketen azterketak.

Harrezkero, etengabe segitu du ikasten. Izan ere, asko irteten da, musikaren alorrean gertatzen diren berrikuntzen berri jakitera.

X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

X Karta eta menu berezien zerbitzua

DENBORALDIKO  
PLATERAK,  
GIRO ONENEAN



## BASTER-ALDE

# J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tel.: 943 79 24 58

## UDARAKO IKASTAROAK (UZTAILA - ABUZTUA - IRAILA)

### INGENIARITZA

- Kalkulua I eta II • Fisika I eta II • Termodinamika
- Informatika • Algebra I

### INFORMATIKA

- Ofimatika ikastaro konbinatuak eta monografikoak (Windows, Word, Excel, Access)
- Internet
- Ordenadore bat ikasle bakoitzarentzat

### ESKOLA PARTIKULARRAK

- LH • DBH
- LOGSE • BT

### MEKANOGRAFIA

- Ordenadore bidez
- Teklatuari begiratu gabe
- Minutuko 360 pultsazio

### GAZTELANIA

### ATZERRITARRENTZAT

### HIZKUNTZA

IKASTAROAK ATZERRIAN  
(King's College)



Garibai, 6 - B ARRASATE Tel.: 943 - 77 11 06

Ikasketen egiaztagiria  
edo diploma



## OROITZAPENEAN BIZIRIK

C.D. Makatzena taldea orain 25 urte jaio zen. Futbol taldeak 10 urte iraun zuen, azkenean Mondragon C.F.ren talde txikia bihurtuz. Ospatzeko, jokalariek eta entrenatzaileek afaria izango

dute Mondragon Hotelean gaur 21:00etan. Urte hauetan futbol taldeari ateratako argazkiak Impresión Digital J.G. dendan daude ikusgai. Argazki horietako bat hauxe da. 1981-82 denboraldian

jubeniletako lehenengo taldeari ateratakoa. Zutik Chicharro entrenatzailea, Raul, Luengo, Coronado, Gonzalez, Mangue, Olatxo, Letona, Fon, Elizaran eta Kanto.

Makurturik, Mugika, Gardoki, Inda, Elorza, Sebas, Heriz, Kote, Teri eta Roman (ordezkaria).



## IKASLEAK MAISU-MAISTREKIN

Arrasateko Bertso Eskolakoek bertso-afaria izan zuten Jon Sarasua eta Imanol Lazkano bertsolariekin. Ainhoa Agirreazaldegi irakaslea ere hantxe izan zen. Primeran ibili omen ziren guztiak batera.

# Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50

## ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE

# Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70



## ESLOVAKIAKO HAIZEAK

Ostiralean Gilad Zevi eslovakiarra gurean izan zen bere margoak erakusten. Duela hamar hilabete alde egin omen zuen bere herritik eta bada hilabete pare bat hemendik zehar dabilela. Argazkiko margoak salduz bizi da. Telefono zenbakia utzi zuen, interesatuen bat izanez gero: 606 89 70 14.



## IZENAK

### Jesus Larrañaga

Giltzurruneko transplantea izan du Bilboko ospitale batean. Arrasateko kooperatibetako sortzailetariko bat izan zen Jesus. Gaur egun erretiroan dago, baina ez geldirik. Bere azken liburua *Interioridades de una Utopia* izan zen.



## LANGILEAK INSTITUTUKO IKASLEAK!

Arrasate-Aretxabaleta institutuko DBHko ikasleek eta Arrasateko zein Aramaioko LHko ikastetxeekok parte hartu dute ingeles hizkuntzan trebatzeko egin diren mintegietan. Gustura ibili ziren, gero!



Hementxe daude AED sariak jaso zituzten Arrasate-Aretxabaleta Institutuko ikasle batzuk: Iban Galan, Maialen Aranegi, Janire Bolinaga, Saioa Iburguren eta Maitane Madinabeitia. Argazki hau bera ere, Institutuko argazki-taldearena da. Zorionak guztiei, eginiko lanarengatik!



# Xume

Oihalak eta kortinak  
Joskintza

*Zabaldu berria!*

Errekabarren kalea, 14  
Aretxabaleta • Tel.: 943 79 11 19




## Elizondo

kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

## Nahi baina ezin



**A**tezainaren itxurak beste gauza bat dirudien arren, itxuran baino ez zen gelditu. Izan ere, Branka Taberna saiatu zen arren, azkenean Aldibik lortu zuen final erdietarako sailkatzea.

## Laburrak

### ■ FINAL LAURDENAK PARTIDAZ PARTIDA

AC Surkos eta Lontxo tabernaren arteko norgehiagoka izan zen final erdietako lehengoa. 7 eta 3 gailendu zitzaion Lontxo AC Surkosi. Zaldibarren ikusitakoak, ordea, ez zuen gol tarte hori egongo zena itxurarik eman. Izan ere, partidaren amaiera arte hiruna zihozen bi taldeak, baina Lontxok laugarrena lortu zuen. AC Surkos launa berdindu

nahian, erasora jarri zen, baina defentsan zulo ugari lagaz.

**Txantxiku Kirolak** eta **Naranja Mecanicak** eguerdiko 12:00etan jokatu zuten. Txantxiku Kirolakek hasiera ezin hobea izan zuen txapelketaren hasieran, baina ezin izan zuen final laurdenetako presioa jasan eta txapelketatik kanpo gelditu da, dudarik gabe final laurdenetako partidarik onenean. 1 eta 3 irabazi

zuen Naranja Mecanicak eta bera izango da final erdietan.

**Orlando Piratas-Potroak** zen hirugarren kanporaketa. 6 eta 1 irabazi zuten Orlando Piratas taldekoek.

Dudarik gabe, emaitza esanguratsua da oso. Hasieratik erabateko kontrola izan zuten Orlando Piratas taldekoek eta eurak arituko dira datorren asteburuko final erdietan.

**Aldibi-Branka Taberna** izan zen azken partida. Iazko irabazleak ezin txapelketatik kanpo gelditu eta ez zuten hutsik egin. 7 eta 4 irabazi zuten final laurdenetako azkenengo norgehiagokan. Partida osoan zehar aurretik joan ziren Aldibikoak eta zailtasun askorik barik gailendu zituzten Brankatarrak. Agian iazko txapel-duna finalistetako bat izan daiteke. Ikusi egin behar final erdietan zer gertatzen den.


**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia  
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Zure begiek  
laster  
ikusiko dute

# ZAFIRA



**OPEL** 

### FINAL ERDIETARAKO APUSTUAK

Lau taldeek maila ona erakutsi dute txapelketa osoan zehar eta laurak antzera arituko direla esan daiteke, final erdiei dagokienez. Dena dela, apustuak egin beharrean gaude, oraintxe du eta, emozioa Zaldibarko txapelketak. Aldibikiazko titulua defendatu nahiko du, baina ez du lan makala izango. Aurkaria, Naranja Mecanica, talde gogorra da. Izan ere, bera izan zen Txan-

txiku Kirolak taldearen borroa. Beraz, gauzak ez daude horren argi.

Bigarren kanporaketari dagokionez, gauzak argixeago egon daitezke. Izan ere, bi taldeek elkarren aurka jokatu dute txapelketaren lehen aldian zehar eta orduan Orlando Piratasek lortu zuen garaipena, 8 eta 6. Hori dela eta, oraingoa emozio handiko norgehiagoka izango da, ziur.

Apustu zaleok beraz, adi. Denetarik gerta daiteke!


### ARBITROAK

Nortzuk izango dira hil ala bizi-ko partida hauek epaitzeko ardura izango duten bi epaile ausartak?

Lehenengo kanporaketan, Lontxo Taberna-Orlando Piratas partidan, Raul izan da aukuratua.

Bigarrenean, berriz, Aldibi-Naranja Mecanica norgehiagokan, Bitorrek izango du ardura.

Zorte on, mutilak, ez daukazue eta, lan makala.



### Emaitzak

Txantxiku Kir. 1- Naranja Mec. 3  
AC Surkos 3 - Lontxo Taberna 7  
Orlando Piratas 6 - Potroak 1  
Aldibi 7 - Branka Taberna 4

## Hurrengo partidak

#### Final erdiak

Ekainak 12, larunbata

#### Zaldibar

11:00 Lontxo Taberna - Orlando Piratas  
12:00 Naranja Mec. - Aldibi

**Final laurdenetako gol averagea** hizpide, honela gelditu dira larunbatean txapelketatik kanpo gelditu ziren taldeak:

- 5- Branka Taberna
- 6- AC Surkos
- 7- Txantxiku Kirolak
- 8- Potroak

**ARRASATE**  **KIROLAK**  
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

## IV Nesken Futbito Txapelketa



### SAILKAPEN GORABEHERRAK

Txanpi 2 taldeak jokatzeko zituen bi norgehiagoka jakatu zituen. Horri esker, sailkapeneko lehen tokian segitzen du.

@z.kom taldeak punturik barik segitzen du. Oraindik ez du norgehiagoka bat bera ere irabazi eta puntuen saskia hutsik dauka. Gauzak horrela, ez da finalean izango. Puntu bakarra dute Nuze

taldeko neskek. Hauek ere, Skarlets taldekoak bezalaxe (hiru puntu dituzte), ezingo dute finaleko norgehiagokak jokatu.

### OHARRA

Antolakuntzak aditzera eman duenez, norgehiagoka bakoitzaren akta bete behar da, astelehenean emaitzen orria bete ahal izateko.

### Ferixalekuan

Txanpi 1, 7 - Pilpil Efektuek 3  
Txanpi 2, 10 - Porrusalda For. 1

### Ekainak 12, larunbata

#### San Viator Txikin

16:00 Gora Gu - Porrusalda F.  
17:00 leup! - Skarlets  
18:00 Nuze - @z.kom

### Ferixalekuan

16:00 Txanpi 1 - Izen Bakuak  
17:00 Txanpi 2 - Pilpil Efektua

### Sailkapena

1 - Txanpi 2	14
2 - Txanpi 1	10
3 - Izen Bakuak	10
4 - Pilpil Efektua	8
5 - Porrusalda Forever	7
6 - leup!!	7
7 - Skarlets	5
8 - Gora Gu	4
9 - Nuze	1
10 - @z.kom	0

### 7. jardunaldia

#### San Viator Txikin

Skarlets 9- Gora Gu 3  
Nuze 3- Izen Bakuak 9  
leup! 12- @z.kom 0

Zilarra luzera jauzian, Gipuzkoako txapelketan

## LANDER ERRASTI

**“Irabazleak alde izan zuen haizea, nik, berriz, kontra”**

— **Lehenengo txapelketa izan zen larunbatekoa?**

— Bai, entrenatzaileak joan nahi nuen galdetu zidan eta horrela egin nuen.

— **Podiumera igo zen arrasatear bakarra izan zinen gainera.**

— Bai. Luzera jauzian 4m eta 19 cm.ko jauzia egin nuen. Lehenengoak baino cm bat gutxiago egin nuen eta zilarrezko domina eskuratu nuen. Irabazleak haizea alde izan zuen, nik, berriz, kontra. Biok berdin izan bagenu ez dakit zer gertatuko zen. Lehenengo izatea gustatuko zitzaidakeen.

— **Domina jasotzeko ilusioa egin zizun?**

— Bai, gainera nik bakarrik agurtu nuen domina jarri ziguna. Irabazleak ez zion kasurik ere egin.

— **Zer behar da horrelako jauziak egiteko?**

— Poliki hasi behar zara eta azkenengo zatian esprinta jo. Jauzian gorputza aurrera bota behar duzu eta ahal duzun jauzirik handiena egin.

— **Nolatan hasi zinen luzera jauzia egiten?**


— Etxekoek “saltarin” deitzen zidaten, beti jauziak egiten ibiltzen nintzelako eta agian horregatik hasi nintzen.

— **Beste kirolak egiten duzu?**

— Pilota eta furbola, baina bi hauek denbora pasatzeko egiten ditut. Niri atletismoa gustatzen zait, batez ere luzera jauzia.

— **Noiz hasi zara Atletiko Taldean?**

— Lehenengo urtea da. Urrian hasi nintzen gutxi gora-behera.



## IGERIKETA Gasteizen irabazle



Ane Lopez de Bergarak berriz irabazi zuen.

Oraingoan Gasteizko urtegian. Espainiako sakonera Handiko I. txapelketa erraztasunez irabazi zuen Anek. Bigarrenari 10 minutu atera zizkion. Eneritz Jauregi zazpigarren sailkatu zen.

Berrogei bat lagun aritu ziren Gasteizko Klub Nautikoan Ordiziako taldeak antolatu zuen txapelketan.

Eguraldia, ez zuten lagun izan hegatsarekin aritzen diren igerilariek. Izan ere, haizea izan zuten kontra eta euria ere egin zuen.

Bihar Euskal Herriko txapelketan arituko dira biak. Eneritzek ur gaineko 50 eta 100 m.ko lasterketetan, uz arpiko 50 metroetan eta eskafandra erako 100m.etan. Anek, berriz, ur gaineko 1.500 eta 500 m.etan.

## ATLETISMOA Emaitza bikainak



Enrike Kabiketa lasterkari beterranoak Bilboko maratoia eskuratu zuen igandean. Sailkapen orokorrean bosgarren izan zen eta beterranoetan lehenengoa, bi ordu, 31 minutu eta 56 segunduko denborarekin.

Jurdana Aiala bestalde, 4. izan zen infantil mailako Euskal Herriko taldekako txapelketan. Jurdana Gipuzkoako taldearekin aritu zen eta 150 m.ko lasterketan laugarren sailkatzea lortu zuen. Mendizorrotzan jokatu zen txapelketa.

Anoetan, berriz, Euskal Herriko txapelketa jokatu zen. Jonathan Perez bosgarren izen

zen pertika jauzian, 4 m.ko jauziarekin. Montxu Mirandak irabazi zuen txapelketa, Euskal Herriko errekorra gaindituz, 5 m eta 71 cm.ko jauziarekin.

## FUTBOLA Haurrak azpitzapeldun



Haur mailako Arrasate Futbol Taldeak ezin izan zuen Gipuzkoako

kopa irabazi. Larunbatean Legazpiko Bikuña futbol zelaian aritu ziren Josu Zubiarenak. Eibarri 2 eta 1 irabazten joan ziren, baina zazpi minutu falta zirela, berdinke-ta lortu zuten eibartarrek. Azkenean penaltietara jokatu zuten finala bi taldeek. Garaipena, ordea, Eibar aldera joan zen. Hori dela eta, arrasatearrak ligako txapeldun bai, baina Gipuzkoako Kopako azpitzapeldun gelditu dira.

Larunbatean lagun arteko partida izango dute Atxabalpen, Errealaren aurka. Norgehiagoka goizeko 11:30ean jokatuko da.

Larunbatean lagun arteko partida izango dute Atxabalpen, Errealaren aurka. Norgehiagoka goizeko 11:30ean jokatuko da.

## XAKEA Tornay bikain



Josu Tornay, San Andres Xake Taldeko kidea Lizarrako

partida erdi azkarren irekian aritu zen maiatzaren azkenengo asteburuan. Josuk 6. amaitu zuen. “Oso ondo dago, kontuan izanda maixu handi eta nazioarteko maixuen aurka aritu behar izan nuela”.

Guztira 66 xakelari aritu ziren eta Josuk Mario Gomez maixu handiaren aurka jokatu behar izan zuen azken partida. Txapelketa Unai Garbizu nafarrek, Euskal Herriko txapeldunak, lortu zuen.

# San Joan Saria larunbatean

Bihar afizionatu mailako San Joan Txirrindulari lasterketa jokatu da. Gipuzkoako afizionatu mailako talde ugari elkartuko dira Garibaiko irteeran. Egun berean, jokatuko dira baita ere, Bizkaia eta Arabako txapelketak, Sestaon eta Agurainen, hurrenez hurren. Larunbatean 09:30etan hasiko da lasterketa.

Joan den asteburuan Turziozen aritu ziren Born Jaykoak. Ruben Gonzalez zortzigarren helmugaratu zen. Laudion, berriz, Oskar Askasibar 6. eta Jabier Miguel 11. izan ziren. Igandean Ataunen Sojo 14. eta Askasibar 15. helmugaratu ziren.

Asteazkenean, Gipuzkoako Erlojuaren Aurkako Txapelketa jokatu zen Alegin. Mendizabal, Gonzalez eta Del Rio izan ziren Born Jay taldeak. Gonzalez 4. izan zen.



Goizeko 09:30ean aterako da San Joan Txirrindulari lasterketa.

## GUENETXEA LASTERKETA

Larunbatean Aretxabaletan jokatu zen 2. urteko haur mailako Pedro Guenetxearen Oroitzapenezkoa.

Garaipena Ander Odrizola zumaiarrak eskuratu zuen. Gainera, honentzat denboraldiko bigarren garaipena izan

zen joan den larunbatekoa.

JMA taldeko Frutos, Lazkano, Perez, Martinez, Aginalde eta Pavon ere aritu ziren. Baina ez zuten lasterketa ona egin. Izan ere, Aitor Pavon izan zen lasterketa amaitzea lortu zuen JMAko txirrindulari bakarra.

## Motor Txikien txapelketa



Datorren larunbatean Motor Txikien II Txapelketa jokatu da Musakolan, 15:30ean. Euskal Herriko txapelketarako baliagarria da proba. Irteera eta helmuga Antso Abarca kalean jarriko da. Arrasate Motorzale Elkartekoek bizi-lagunen laguntza eskatu dute, ahal den neurrian ibilbideak zeharkatuko dituen kaleetan autorik ez lagatzeko. Izan ere, motor txikiek 100 km/orduko abiadura har dezakete.

# Herri krosean 88 lagun aritu ziren

Eskoriatza-Arrasate herri krosean 88 korrikalari aritu ziren joan den igandean. Zazpigarren aldian izan zen igandekoa. Arrasateko korrikalariak sasoi ona dutela erakutsi zuten herri-tarren aurrean.

Senior mailan garaipena Asier Zarraga bilbotarrak eskuratu zuen. Beteranoetan, ordea, Jabier Mentxaka mondrogoetarra izan zen garailea (eta 8. sailkapen orokorrean). Juniorretan Fernando Nogales bigarren sartu zen. Emakumeetan bigarren eta hirugarren tokiak arrasatearrek eskuratu zituzten. Maia Mazorriagaren atzetik, bigarren Mari Carmen Gartzia izan zen eta hirugarren Mari Jose Gil.

Zazpi km.ko ibilbidea aldapan behera izatea esker-tzekoa dela adierazi zigun Ira-



Asier Zarraga bilbotarrak irabazi zuen aurtengo krosa.

txe Aranburu, sailkapen nagusian 25. eta emakumeetan lehenengoa izan zenak. Bera entrenatzaera etorri zen herri krosera. Izan ere, orain Espai-

niako txapelketa prestatzen ari da, 1.500 m.ko lasterketan.

Dena dela, herri kros gutzietan bezala, umore ona eta kiroltasuna izan ziren nagusi.

## Errugbi topaketa

Arrakasta handia izan zuen joan den larunbatean jokatu zen Nazioarteko Zazpinako lehenengo Errugbi Topaketak. Arrasateko Errugbi taldeak antolatu zuen eta hamar talde aritu ziren Atxabalpen. Hiru lehiaketa jokatu zituzten: urrezkoa, zilarrezkoa eta brontzezkoa. Arrasateko Errugbi taldea bigarren sailkatu zen brontzezkoan. Osterantzean:

### Urrezko lehiaketa

- 1- Zu-Zu (Frantzia)
- 2- Esait
- 3- Bera-Bera (Donostia)

### Zilarrezko lehiaketa

- 1- Independiente (Santander)
- 2- Ordizia
- 3- Gaztegi (Gasteiz)

### Brontzezko lehiaketa

- 1- Hernani
- 2- Arrasate
- 3- Durango

## PILI OTXOA (UMEZAINZAKO IRAKASLE)

# “Gauza asko ikas da”

**Pili Otxoa 1949an jaio zen, Arrasaten. Oinarrizko ikasketen ostean, Irakasle ikasketak egin eta 1978. urtean urtebeteko umetxoekin hasi zen lanean. Ondoren, 2 urte-tik 6 urte arteko haurrekin aritu zen urte askoan. Hogeita bat urteren ostean, lanbide berean segitzen du, Jaio eta hiru urte arteko haurtxoekin lanean.**

**— Hainbeste urteren ostean, ez zara aspertu?**

— Ez, oso gustura nabil. Lanbide polita da, oso aberatsa eta eduki ugari duna, batez ere, orain, hiru urte arteko haurtxoekin nabilenetik. Ez nuke inolaz ere lanbidez aldatuko.

**— Zergatik adin hori?**

— Hiru urte bete bitartean, haurraren nortasuna zehazten hasten da eta, ostera, sei urte bete bitartean, nortasun

hori eta haurrak jaso dituen oinarriak finkatuz joaten dira. Noski, hori oso garrantzitsua da haurraren bizimoduan.

**— Zer ematen dizute zuri haurrek?**

— Gauza piloa... Ume baten bitartez gauza asko ikas daiteke. Neuk asko ikasi dut haiei begiratu, ematen dituzten erantzunak aztertuz, sentimenduak, emozioak eta sententzioak irakurtzerakoan... Askok aberastu naute.

Haurrak oso azkarrak dira, naturalak, sentitzen dutena azaltzen dute. Horixe ondo ulertzen ikasi beharko genuke eta behar bezala laguntzen. Horretarako hausnarke-ta sakona egin behar da, norberagandik hasi eta batez ere taldean. Guk, Umezaintzan, talde lan asko egiten dugu, ea asmatu dugun haurrarekin edo ez badugu asmatu, zergatik izan den... Hau guztia ikertu

beharra dago eta horretarako oso garrantzitsua da taldeka egindako lana.


**— Zer nabarmenduko zenuke haurrengandik ikasitakoaren artean?**

— Umea sentitzen ikasidut. Ume bakoitza mundu bat da eta nagusioi zer emateko ugari dauka. Negar desberdina somatu behar dira, bakoitzak bere esanahiarekin. Umeekin komunikatzea, horixe da behar dena. Kasu honetan oso garrantzitsua da nagusio jarrera, umeak a l a i g a u d e l a i k u s t e a ,

poztasuna erakustea eta baita koherentzia ere.

**— Zer lortu nahi duzu zurekin hiru urte-edo ibiliko den haurrengandik?**

— Legezko helburuez gain, ume alai izatea, gauzak naturaltasunez eta sormenez adierazten jakitea. Nortasuna izan dezan nahi dut, gai izan dadila gauzak adierazteko eta besteei entzuteko ere.



**“Bereiztu egin behar dira afektibitatea eta mimoak. Ezetz esaten ere jakin behar da, ezetzaren zergatia adieraziz”**

# teke ume baten bidez”

Errespetatzen dakiena... Gizartearentzat oso gauza ona da. Baina ezin dugu ahaztu nagusiok garelako umeen eredu.

— **Badaude “ezinezkoak” diren umeak?**

— Ez, guk jakin egin behar dugu ume hori ulertzen; batez ere ikasi behar dugu umeak ez etiketatzen.

— **Zer aholku emango zenioke guraso den bati?**

— Umea ulertzea eta maitatzea, baina afektibitatea eta mimoak bereiztuz. Ezetz esaten ere jakin behar da, mugak

jarri behar dira. Gure gizarte honen barruan askotan entzundugu ditugu ezetzak eta umeak jakin egin behar du hori, baina beti ezetz horren zergatia adierazi behar da.

Honetaz gain, komenigarria da umeari ardura txikiak ematea, guk berarengan konfiantza jartzea. Umeak igarri egiten du hori, izan ere, gauza guztiak berehala nabaritzen ditu, oso pertzepzio handia du.

Nagusiok koherenteak izan behar dugu eta baita zentzudunak ere.

— **Lehenago haurrak eta**

**oraingoak desberdinak dira?**

— Lehenago umeek ama zuten erreferentzia moduan etxean. Orain egiteko hori beste batek betetzen du askotan. Dena dela, pertsona hori koherentea eta izanez gero, eta gurasoen eta eskolako arduradunen arteko harremanak onak izanez gero, ez litzateke arazorik izango. Horregatik diot oso garrantzitsua direla gurasoen eta eskolako arduradunen arteko harremanak. Umeek antzeko jarrerak ikusi behar dituzte inguruan. Ume guztiak demanda egingo digute, hori garapenaren seinale

delako. Guk jakin egin behar dugu horretara moldatzen eta umeari ulertzen, esan beharrekoa, ezetz bada ezetz eta baietz bada baietz, esanez.

— **Zer esango zenioke umeak ekartzea ez duela merezi esaten duenari?**

— Gauza asko galtzen dituela. Lehendabizi, umea sentitu egin behar da. Bigarrenik, aproba egin dezala esango nioke; izan ere, lana ematen dute, bai, baina baita ordaina ere. Noski, eurek ere asko har dezakete gugandik eta guk eman egin beharko genieke.

Zarpatak  
arropak  
Tatuajeak

TOTEM

bodi piercing


ARRASATE  
Mondragon

943 79 49 72 / 943 79 44 88  
Zarugalde, 14 • ARRASATE

# Takolo, Pirritx eta Porrotx Arrasaten

“Baserrian” ikuskizuna eskainiko dute Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen ekainaren 12an, arratsaldeko 17:00etan, Amaia antzokian. Sarrera 400 pta ordaindu beharko da, eta alde zurretik salgai izango dira, ekainaren 9, 10 eta 11n, Amaia antzokiko lehiatilan, 18:00etatik 19:00etara.

Amona Josefina base-rrira joatean izandako bizipe-  
nak kontatuko dituzte hiru pailazoen beren antzezlanean. Baserrira ez dute jostailurik eramanez beharrik izango, etxe-ko lanetan lagunduz, Pantxika astoarekin dantza eginez, oilategira arrautza bila joanez... ongi asko pasako baitute. Dena den, bat-batean Melontzio Makalontzio diruzale amorratu eta pertsona maltzur eta burugogoraren bisita jasoko dute. Melontziok baserria erosi egin nahiko du, haren lekuan hamar solairu-



ko etxea, hotela, aireportua eta hipermerkatua eraikitzeko.

Dena den, amona Josefina eta pailazoen bizirik ikusi nahi dute baserria.

1987. urtean sortu zen Takolo, Pirritx eta Porrotxen taldea, eta orduz geroztik hainbat ekitaldi egin dituzte bai ikas-tetxeetan, antzokietan eta kirol-degietan. Azken urteotan hainbat disko eta ikuskizun jarri dituzte txikienean eskura: 1992an “Hau Umorea” diskoa kaleratu zuten, eta honen ondotik etorri ziren “Beti Martxan”, “Ongi Bizi”, “Kili-kili”, “Tantaka Yontaka” eta “Makarroiak!”. Aurten “Baserrian” diskoa plazaratu dute. Izen bereko ikuskizuna ere prestatu dute.

Emanaldiak ordu eta erdiko iraupena du, eta abestiak, barre eragiteko esketxak eta beste hainbat aldrebeskeria ere eskaintzen dituzte.

## Lehenhitz haur ikastolako anagrama lehiaketa

Hezibideko proiektuaren barne, Eskoriatzako Jose Arana-Almen, Arrasateko San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umezaintzako ikastolek kooperatiba bakarra osatuko dute haur hezkuntzako etaparako: Lehenhitz haur ikastola. Hori dela eta, anagrama diseinu lehiaketa antolatu dute.

Bi kolore izan beharko ditu anagramak, eta baita



Leintz bailararekin identifikatzen duen elementuren bat

ere. “Lehenhitz haur-ikastola” testua agertzea ere funtsezkoa da.

Lanak ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, honoko helbide honetara: Hezibide elkarte. Larrin plaza, 1. 136 postakutxatila, 20550 Aretxabaleta.

Partaidearen izen eta datu guztiak sobre itxi batean aurkeztuko dira, eta irabazleak 100.000 pta eskuratuko ditu.

## Literaturan saritua



Eluska Zabalo 17 urteko arrasatearrak bi sari lortu ditu Iruñeko gazteentzako literatura lehiaketan, poesia arloan. Lehengo saria “Zeozar bada-go” poesiarekin eskuratu du. Hirugarrena, berriz, “Zaldi herrena” lanarekin irabazi du.

Eluskak idaztea gustuko duen arren, ez duela asko lantzen aitortu digu, baina aurrez ere lortu izan du beste saririk. Zerbaitengatik izango da!

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07



•ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95  
ARRASATE



AINHOA AGIRREAZALDEGI (BERTSOLARIA)

## “Ez dut uste Arrasate lehen bertsozalegoa zenik”

Ainhoa Agirreazaldegí 21 urteko bergararra da Arrasateko Bertso Eskolako irakaslea. Bertsolaritza artea dela dio, lan piska bat eginez gero, asko ematen duena. Bere ikasleak definizio horretara hurbiltzen ari direla uste du, eta seguru dago landu gabeko bertsolari onik ez dagoela.

— Arrasaten badago bertsotarako zaletasunik?

— Egon badago, baina bertsozaleak berriz ere bertsotara bultzatuko dituen giroa falta da. Lehengo Leintz Bailarako Bertso Eskolak aurrera egin zuen, eta herriak urte askoan erantzun izan die bertso arloko ekintzei. Orain agian giro hori itzalita dago, baina egon, badago.

— Orduan, lehen bertsozaleagoa zen Arrasate?

— Ez dut uste, baina ohitura eta motibazio gehiago zegoen. Bertso eskola da horren faktore nagusia, eta eskola indar gabe egon denean, herriari nabari egin da.

— Bertsolaria izateko jaio egin behar da ala ikasi?

— Izaerak garrantzi handia du, baina ikasi ere egin liteke. Dena den, berezki zerbait izatea ere komeni da.

— Noiztik diharduzu bertso eskolan?

— 9-10 urterekin Bergaran hasi nintzen. Handik pare bat urtera Arrasatera etorri eta hemen ibili nintzen, 16 bat urte nituen arte. Patxi Goikolea izan zen gure akuilu, eta Arantzazu Loidi, Sarasuatarrak, Izarzelai... gure babesle. Gero Aretxabaletako Bertso Eskolan eta orain Arrasatekoan nabil.



— Zenbat ikasle dituzu?

— Ikasle kopurua hasi ginetik asko aldatu da. 15 bat hasi ginen, eta orain 8-9 gabilta. Gehienek 14tik 16 urtera bitartean dute.

— Nola lantzen duzu bertsolaritza zure ikasleekin?

— Hasi ginetik asko aldatu dugu modua. Askok hutsetik hasi behar izan dute, eta lehenengo momentutik bat-batekotasuna lantzen hasi ginen. Orduan kantatzea soilik zen helburua. Gero bertso horiek eta arrazoiaketa hobetzen saiatu gara beste bertsolarien bertsoak entzunez, bertso idatziak kantatuz, errimak landuz...

— Zein helburu dituzu ikasleekin?

— Leintz Bailaran urte askoan aitzindari izan den bertso eskola izan dugu, eta eskola hori finkatu nahi nuke. Ikasleak talde bezala senti daitezela, eta herriak ikus dezala bertso eskola badagoela. Baita zenbaitek aurrera egitea bertsolaritzan.

### aste gazte

#### ■ DIRU LAGUNTZAK

• Gipuzkoako Agiritegi Nagusiak bi beka eskuratzeko deialdia egin du, Gipuzkoari buruzko historia ikerkuntza egiteko. Azken lau urteotan uni-bertsitateko goi titulua lortu dutenentzat da. Epea: irailak 1.

• Enpresa Publikoa Fundazioak urteroko beka deialdia egin du. Alcoa-Inespal taldean praktikak egiteko aukera. Epea: ekainak 10.

#### ■ LANA

• Huarteko Udalak kirol koordinatzaile postua bete nahi du. Epea: ekainak 20.

• Legelariak behar dira Eusko Legebiltzarrerako. Epea: ekainak 21.

• Erdi mailako euskara teknikariak behar dira Nafarroako Foru Erkidegoan. Epea: ekainak 27.

#### ■ HIZKUNTZA EGONALDIK

• Gipuzkoako Foru Aldundiak eraturik, 18-29 urte artekoek ingelesa ikasteko aukera izango dute Segurako Aterpetxean, abuztuaren 1etik 15era bitartean. Izenak emateko epea: maiatzaren 26tik ekainaren 25era.

#### ■ AUZOLANDEGIK

• Kutxaren eskaintza 16-30 urte arteko gipuzkoarrei. Lezetxikin, Irunen, Ataunen eta Zestoan egingo dira, uztailean eta abuztuan. Epea: ekainak 18.

#### ■ IKASTAROK

• “Laguntza harremanak eta komunikazioa zaharrek” ikastaroa, ICTek antolatuta. Ekainaren 14tik 22ra bitartean egingo da.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

“Izaerak badu garrantzia bertsolaritzan, baina ikasi ere egin liteke”

**ETXEBIZITZAK**

**3. Errentan emateko**

• Apartamentua alokagai Benidor-men. Tel.: 943 79 54 48.

• Sei pertsonarentzako apartamentua alokagai Laredon, igogailu eta guzti. Hamabostaldia 80.000 pta. Tel.: 943 76 44 34.

• Apartamentua alokagai Peñiskolan, uztaileko lehen hamabostaldian eta abuztuko bigarrenean. Hondartzatik eta kirol esparrutik oso gertu. Tel.: 943 79 57 31.

• Igerilekua eta aire girotua dituen apartamentua alokagai Saloun, abuztuan eta irailan. Hondartzatik hurbil. Tel.: 943 79 38 84. 20:00etatik aurrera.

**4. Errentan hartzeko**

• Bi ikaslek etxebizitza alokatuko genuke hurrengo ikasterterako. Prest geundeke beste batzuekin ere etxebizitza osatzeko. Tel.: 617 26 32 41 (gazez) edo 943 67 05 48 (asteburuetan). Josune.

• Lau neskek etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten. Tel.: 943 64 28 37.

• 4 edo 5 logelako etxebizitza alokatuko genuke. Tel.: 943 79 84 40.

• Lan kontuagatik Gasteizko bikote gazte batek (35 eta 32 urte) etxebizitza behar du, bi urterako gutxienez, Arrasaten edo inguruetan. Tel.: 945 25 70 91, 943 71 42 86. Jabier.

• Lau gaztek etxebizitza alokatuko genuke. Tel.: 943 79 50 85. Igor.

• Arrasaten etxebizitza alokatu nahiko genuke. Tel.: 656 41 60 93 eta 94 673 71 72. Arkaitz.

• Etxebizitza errentan hartuko genuke lau ikaslek. Ahal bada, Eskola Politeknikoaren inguruan. Tel.: 943 77 16 61. 104. logela, 21:00etatik 22:15era.

• Etxebizitza nahi dut alokatu. Uztailetik aurrera. Tel.: 945 24 08 65. Zuriñe.

**5. Etxeak osatzeko**

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da Arrasate erdialdean. 943 79 59 60. Ramon.

• Neska bat behar da gela bat alokatzeko ekainaren 15etik irailaren 15era, San Andresen. Tel.: 943 79 72 99. Maria, 18:00 - 19:30.

**ETXEBIZITZAK**

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

**GARAJEAK**

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**

12. Saldu

**MOTORRA**

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**

34. Agurrak
35. kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



**943 71 25 11**

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

**GARAJEAK**

**7. Saldu**

• Garaje itxia salgai Iturripe eta Eskola Politeknikotik gertu. 20 m<sup>2</sup>. Tel.: 943 79 34 70.

• Garajea salgai Lankelen (Roneo) Tel.: 943 79 01 71. 19:00etatik 22:00etara.

**9. Errentan emateko**

• San Andres auzoan garaje lekuak salgai. Tel.: 608 77 07 86.

• Garaje bikoitza alokagai, Roneon. Tel.: 943 79 13 56.

**10. Errentan hartzeko**

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

**LOKALAK/ORUBEAK**

**12. Saldu**

• Biitegirako edo autoa gordetzeko 50 m<sup>2</sup>ko lonja alokagai edo salgai.

Tel.: 943 79 45 58.

• 60m<sup>2</sup>ko toki baten bila bazabiltza bulegoa, ile apaindegia edo antzeko zerbaitez jartzeko, deitu 943 79 18 95 telefonora. Berogailua dauka eta Arrasate hoteletik gertu dago.

**14. Errentan emateko**

• 140 m<sup>2</sup>ko tokia alokatzen da. Tel.: 943 79 34 23. 21:00etik aurrera.

• Lokal komertziala alokatzen da Arrasateko erdigunean. Tel.: 600 65 68 15 edo 630 55 16 29.

**15. Errentan hartzeko**

• Garaje edo toki txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 943 79 72 93.

**LANA**

**17. Eskaintza**

• Emakume euskalduna prest umeak zaindu, etxekolanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Emakume arduratsua umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu.

Tel.: 943 79 54 48.

• Emakumea garbiketak eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 943 79 78 36. Mari Carmen.

• Zerbitzaria behar da asteburuetan jabetxe batean lan egiteko. Tel.: 945 44 50 90.

**18. Eskaerak**

• Esperientzia duen ile apaintzailea behar dugu. Tel.: 943 77 16 31.

• Zerbitzaria behar da Arrasateko taberna batean. Tel.: 943 79 22 15.

• Neska edo mutila behar da asteburu gauetan jantgelan zerbitzeko. Tel.: 943 79 68 57.

• Tabernaria behar da Oñatiko taberna batean aritzeko. Tel.: 943 78 06 59.

• Neska gazte bat behar da haurrak zaintzeko, ekainaren 15etik uztailearen 30era bitartean. Goizez, 09:00etatik 13:00etara. Tel.: 943 79 82 73. Maribel, iluntzetan.

• Zerbitzariak behar dira jatetxean aritzeko. Tel.: 943 78 35 26.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 05 22.

**IRAKASKUNTZA**

**20. Eskaintzak**

• Ingeleseko eskola partikularrak emango nituzke. Tel.: 943 79 01 06.

• Ingeleseko eskolak emango ditut uztailean. Tel.: 943 79 18 70.

**21. Eskaerak**

• Mekanografiako eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 25 10. Igor.

• Batxilergoko 2. mailako matematika eta teknologia industrial elektriko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 34 53.

• Ile apaindegiko titulua duen neska prest lana egiteko. Tel.: 943 79 53 57 edo 943 17 02 43. Maider, gazez deitu.

**MOTORRA**

**23. Saldu**

• Renault Espace 2.1 TD salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 26 16 / 943 79 68 31 (Urtzi).

• Ford Escort RS turbo salgai. Matrikula SS-AG. Tel.: 943 72 59 90. Gauzez deitu.

• Honda Shadow 1100 motorra salgai. Oso egoera onean, estra asko-ekin. Osagai orijinalak oparitan. 1.180.000 pta. Tel.: 943 00 81 15 (Jabi).

• Volkswagen Golf GTI, SS-AF matrikula, salgai. Tel.: 943 77 04 87 / 670 40 41 20.

• Opel Vectra 2. 0l GT 16V saltzen dut (93ko modeloa), SS-AN. Tel.: 943 79 63 67.

• Audi 90 2 2 Quattro salgai, SS-AH matrikuladuna. Oso egoera onean, estra guztiekin. Tel.: 608 77 18 57.

• 1998ko Derby Senda SM bat salgai, 200.000 pta.tan. Egoera onean. Tel.: 943 79 58 45. Raul.

• Ford Sierra 2.000 CL, SS-Z salgai. Tel.: 943 79 95 01.

• Vespino NLX ia berria salgai. Tel.: 943 79 60 81. Jose Mari.

• Opel Corsa salgai. 80.000 km. SS-V. Egoera onean. Tel.: 943 58 50 17.

• Volkswagen combi bat salgai, guztiz hornituta. Tel.: 943 71 49 15. 21:00etatik aurrera.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Euskal artzai zakurra, arra, salgai. Tel.: 943 78 34 79.

• Tamaina handiko Conver-13 bat salgai, 8 bat urtekoa, ongi mantendua eta prezio onean. Tel.: 943 79 22 28.

• Yamaha-Clavinova (CLP 360) pianoa salgai. Erabiltzeko dago. Tel.: 943 75 11 70.

• Super Nintendo bat salgai, sei joko, aginte eta klabe eta guzti (konektoreak). Tel.: 943 79 92 23. Josu, gauzez.

• Kanpin denda salgai. Bi logela, estalkia eta egongela txikia ditu, berria dago eta ipintzeko erraza da. Tel.: 943 74 05 37. Mila.

• Karabana salgai, Roller 390. Tel.: 943 77 05 22. Iluntzean deitu.

### 27. Erosi

• Bigarren eskuko pisu bat (pizatze-koa) erosiko nuke. Tel.: 943 79 86 28.

• Lerro bateko irristailuak erosiko

nituzke. 37 zenbakikoak. Tel.: 943 42 12 61. 20:00etatik aurrera.

### 29. Eman

• Lau katakume oparitzeko. Nahi duenak, deitu 943 79 97 84 telefonora. Xabi.

• Bi bizikleta motordun oparitzeko nituzke. Tel.: 943 79 38 84.

### 30. Hartu

• Panpinak behar dira lehenbailehen arte lan bat egiteko. Egoera onean bueltatuko dira. Deitu asteleheneetik ostegunera bitartean 670 30 02 69 telefonora. Maite.

### 31. Galdu

• Graduatutako betaurrekoak galdu dira Musakola auzoan. Aurkitu dituenak dei egin dezala, mesedez, 943 79 53 041 telefonora. Sarituko da.

• Neskatila bati urrezko eraztuna galdu zaio. Eraztunak 2 harri txiki ditu eta esparadrapoa darama. Topatu baduzu, deitu mesedez 943 79 84 87 telefonora iluntze aldera.

• Betaurreko graduatuak galdu dira Uribarrin. Tel.: 943 79 95 24. Kar-

men.

• Behealdeko ordezko haginak aurkitu ditut. Zaldibarko 7. zenbakian. Tel.: 943 77 11 68.

• Umearen bota zuria galdu nuen joan den ostegunean, hilaren 20an. Munar, Arrasate pasealekua eta erdialdea bitartean. Tel.: 943 79 69 68.

### 32. Aurkitu

• Uribarri inguruan katu zuria topatu dugu. Jabeak dei egin dezake 943 79 51 21 telefonora.

• Orain dela hilabete lepoko zapi bat aurkitu nuen, Uribarri etorbidean. Tel.: 943 79 34 61.

• Betaurreko batzuk agertu dira Larragain kaleko garajearen. Tel.: 943 79 86 28.

## HARREMANAK

### 35. Kontaktuak

• Biolin jole eta zehar flauta jole bat behar dugu musika talde batean jotzeko. Tel.: 943 79 95 76. Esteban.

# Lehenengo urteurrena ospatzera gonbidatzen zaitugu



**HOTEL  
MONDRAGON**

\*\*

Biteri Etorbidea, 16  
Tel.: 943 71 24 33

San Juanetarako  
menu bereziak

**Ekainaren 18an**  
19:30ean JURASIC BAND  
kafe-pianoan.  
Gauetan SARI ZOZKETA  
kafe-pianoan,  
GARDOKI trikitalariek girotuta.

**Ekainaren 23an**  
"Noche de Meigas"  
edo "Sorgin Gaua" terrazan.  
Zatoz "queimada" eder bat dastatzera!

# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1 ..... ☎ 943 77 13 34

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40

## DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22 - 1 ..... ☎ 943 79 72 16

## FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ..... ☎ 943 77 03 96

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ..... ☎ 943 77 14 72

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ..... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IBURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- Lorenzo Martin, Rafael Zarugalde, 3-1.-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lumbalgia) Azoka kalea, 4 ..... (Mobila) ☎ 989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎ 943 79 20 18

## PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ..... ☎ 943 79 53 63

## PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22

## TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22



ATBk bozketa eguneko jarraipen estua egingo du.



Maria Agirre.

## Hauteskunde gaua ATBn

Arrasate Telebistak programa berezia eskainiko du ekainaren 13an, bozketa egunean, hauteskundeetan ateratzen diren emaitzen berri emateko. Gaueko 21:00etan hasiko da eta Maria Agirre kazetari atxabal-darrak aurkeztuko du.

Saioa zuzenean egingo da eta emaitzak, etorri ahala, eman egingo dira. Maria Agirrek bi laguntzaile izango ditu platoan: Mikel

Irizar eta Mikel Lezamiz.

Arrasateko emaitzak emango dira inon baino lehenago eta osoago: botoak, zinegotziak eta auzoak aztertuz. Inguruko herrietako emaitzak ere emango dira. Horiekin batera, Batzar Nagusietako emaitzak eta Europako Parlamentukoak ere jakinaraziko dira. Bozketa egunak Arrasaten izango dituen gorabe-

herak ere agertuko dira saio horretan.

Gauak aurrera egin ahala, Arrasateko politikoak agertuko dira platoan, iritziak emateko. Programa osoa, arrasatearrek behar duten informazio guztia izan dezaten.

ATBko talde teknikoa jo eta ke dabil azken asteotan programa prestatzen. Astelehenean errepikatu egingo da igan-

de gaueko saioa, 13:35ean, Albiste Aurrerapenaren ostean.

### EKILAN ETA MUSIKLASIK, AGUR

Aste honetan Ekilan eta Musiklasik saioek agur esango diote denboraldi honi. Musiklasik-en Mondragon Camerata Orkestrak ekainaren 5ean San Frantzisko elizan eskaini zuen kontzertua gozatu ahal izango da.

## ■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 12	ASTELEHENA, 14	ASTEARTEA, 15	ASTEAZKENA, 16	OSTEGUNA, 17	OSTIRALA, 18
13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika: Jolasplast, Musiklasik, Aurrez Aurre, Soinuz Blai.	13:30 Albiste aurrerapena.  13:35 Hauteskundeak 99  20:00/20:30/21:00 Berriak.	13:30 Albiste aurrerapena.  13:35 Mondrasport (errepika).  19:20 Jolasplast. Mikel Lizarralde aurkeztutako haur jolasen saioa.  20:00/20:30/21:00 Berriak.  21:30 Musiklasik.	13:30 Albiste aurrerapena.  13:35 Musiklasik.  20:00/20:30/21:00 Berriak.  21:30 Aurrez Aurre. Aste honetako gonbidatua Jose Mari Astigarraga, parrokoa.	13:30 Albiste aurrerapena.  13:35 Aurrez Aurre (errepika).  20:00/20:30/21:00 Berriak.  21:30 Ekilan. Azken programa.  22:00 Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkeztu duen musika saioa.	13:30 Albiste aurrerapena.  13:35 Ekilan (errepika).  20:00/20:30/21:00 Berriak.  21:30 Astebete. Azken programa. Astean zehar gertatu diren albiste garrantzitsuenen errepasoa Maider Osak aurkezturik.  22:00 Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkezturiko musika saioa.
IGANDEA, 13					
13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika: Jolasplast, Musiklasik, Aurrez Aurre, Soinuz Blai.  21:00 Hauteskundeak 99	21:30 Mondrasport Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, asteburuko kirolei errepasoa.				



**A**rgazki hau 1930-31. urte ingurukoa da. Agertzen direnak, berriz, honako hauek. Goian eskuinetik hasita, Juan Arregi (Roneo lantegiko burua), Andres Arregi Larrañaga eta bere emaztea Maria Arregi Altuna "Sagardotegi", Rafael

la Ruiz, (Jose Martinez de Ubago, urte askoan Juventud Deportiva de Mondragoneko lehendakaria izan zenaren emaztea izan zen gero). Ondoan dagoena, Rosa Arregi da (Arregitar senar-emazteen senitartekoa), hurrengoa ezezagun bat, ondoren Felisa Ibañez dator eta azkenik Valeriano Martinez.

Eserita daudenetatik ezke-

rrekoa Jose Mari Armengou da eta eskuinekoa Musakolako "Artxubi" baserrikoa. Hiru arregitar daude argazkian; "Sagardotegi" esaten zieten, izan ere, Olarte kalean, orain Markiegi denda dagoen tokian, sagardotegia eduki zuten 1929-30. urtea arte. Orain denda gainean dagoen etxea ere arregitarrek eraiki zuten.

Argazkiko gehienak maki-la edo eskumakila batekin daude. Izan ere, lagun-talde honek mendira joateko zaletasun handia zuen eta badakigu egun horretan, Eibarko Kalamua mendian izan zirela egunpasa.

-----  
**Argazkia:** Arantza Alonso.  
**Berriemak:** Julio Galarta eta Marilu Arregi.



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55




haize berriak



Arrasate

# Euskal herritarrok

bozkatu



Euskal Herritarrok

**Astra** Berria

**Teknologia eskubide bat da,  
ez da pribilegioa.**



Uste dugu ez duela zentzurik auto bat diseinatzeak, gutxi batzuen eskura egon behar bada. Horregatik geure erronka izan teknologia, segurtasun eta erosotasun gorena duen autoa sortzea, baina mundu guztiaren eskura. Opel Astra berria. Teknologia eskubide bat delako, ez pribilegioa.

**Serieko ekipamendua:** ABS elektronikoa lau gurpiletara, lagunduriko direkzio elektrohidraulikoa, korrosioaren kontra 12 urteko bermea duen karrozeria galbanizatua, atzealdeko ardatza efektu direkzionalarekin, garaieran eta sakontasunean egoki daitekeen bolantea, gidatzailearen jarlekua garaieran egoki daitekeena, leihoak igotzeko sistema elektrikoa, itxigailu zentralizatua urrutiko agintearekin, tamaina handiko air bag-a gidatzailearentzat, lapurretaren kontrako geldiarazle elektrikoa, funtzio askotarako pantaila:



Motor hauek daude eskuragarri: 1.6tik 2.0 16v.-ra; turbodieselelan 1.7 eta 2.0 DI 16v. Karrozeriak 3,5 atetan eta Caravan. Bukaera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

**TALLERES OLA**

**OPEL**  
INGENIARITZA ALEMANA ZUR

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Ar. 1. E. Bil. 2/ (Ar. 1. E. Bil. 2/ (Ar. 1. E. Bil. 2/)) Tel. 943 70 05 86